Jendartea

Hautestontzi erraldoia egingo du Gure Esku Dago-k Laudion 3. or.

Iritziak:

NORBERTO ALDAITURRIAGA 2. or.
LUIS VIL 10. or.
JAVI ASPURU 12.or
Kronika:
NAHIA GONZALEZ GARCIA 12. or
IRATI MARAÑON 16. or

Sozioekonomia

Kaleratutako langileen aldeko greba atzeratu dute Gometeguin 4. or.

_elkarrizketa:

EGOITZ URIARTE

> “Green Valley-rekin indartsu gabiltza, baina nire proiektu pertsonalak beti daude hor” 10.or



aiaraldea.eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2015 /// Ekainak 4 ///
ASTEARTEA
35. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

HEZKUNTZA ERREFORMA

Bederatzi urteko umeentzako errebalida

Argazkia: **Bego Guillen**

Liga amaitu dute Aiaraldeko hainbat taldek, askotariko emaitzekin

Askotariko emaitzak lortu dituzte Aiaraldeko taldeek aurtengo Ligan. Futbolean maila igoerak izan dira nabarmen, nahiz eta behera egingo duen talderen bat badagoen. Amurrioko kluba, Kaskagorri, Etorkizuna, Atxulaur, C.D. Orduña, C.D Laudio, Indarra eta Iberlanda taldeen emaitzak aztertu ditugu. Saskibaloian, aldiz, talde gehienek maila berdinean jokatuko dute. Oraingoan Zaraobe kluba, Bedarbide eta Sugarrak taldeak izango ditugu aztergai. Hockeyan oso postu onak lortu dituzte gure eskualdeko taldeak Laudio zein Luiaondoko taldeen emaitzak bildu ditugu.

DORRETXEAK: Aiaraldeko jauntxoen arteko gerra odoltsuetan erabiliak atzo, jauretxe bihurtuak gaur 8-9 or.

Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

GUREKIN ERE EUSKARAZ!

JAIETARAKO PRODUKTU PERTSONALIZATUAK
KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU ETA LORTUKO DUGU///
SERIGRAFIA, BORDATUA, BINILOA, INPRESIO DIGITALA

_iritzia

Norberto
Aldaiturriaga
LEGEBILTZARKIDEA

_Leihotik

Uholdeak

Udaberri honetan eurite handiak izan dira Euskadin, eta uholdeak eragin dituzte hainbat herri eta hiritan. Zorionez, Laudion ez dugu halakorik izan.

Horrek gogora ekarri dit nola duela hogei urte inguru lan batzuk egin ziren Nerbioi ibaiak Laudio zeharkatzen duen ibilbidean. Lan horiek helburua betetzeko balio izan dute: uholdeak saihestea, pertsonen bizitzen aurkako arriskuak murriztea, ibaiak gainezka egitea, eta baita horren ondoriozko kalteak ekiditeko ere.

Lan horiek, gaur, ez lirateke egingo. Izan ere, gure gizartearen zati batek galarazi egingo lituzke, ingurumenaren defentsaren inguruan ikuspegi partikularraren ondorioz. Erakunde sustatzaileei interes ilunak izatea leporatuko liekete.

Ahots asko agertuko lirateke; ez proiektuaren ontasunaren inguruan eztabaidatzeko, baina bai ez dakit zein sasi interes aurpegiratzeko.

Gaur modan dago horrelako ekimenak zalantzan jartzea. Demokrazia sakondu den garaian, noiz eta mundu osoak Interneten darabilen informaziora sarbidea duenean, zalantza handiak dauzkat zenbait pertsonek gauzen oinarrizko izaera areagotu ote duten. Are gehiago, badago jendea aukera politiko baten alde bozkatzeko prest dagoena, jakin gabe nor den ordezkatuko duen pertsona edo zein den bere lan-egitaraua.

Bide batez: Nerbioi ibaiak Laudio zeharkatzen duen ibilbidean, gaur (lanak egin ondoren), ekosistema honi lotutako lehen beste fauna eta flora aurki ditzakegu, gehiago ez baldin bada.

Itziar
Zientzietako ikaslea

Urduri. Ez dut argi zer ikasiko dudan selektibitatearen ostean, filosofia edo psikologia. Filosofian nota gutxi eskatzen dute, baina psikologian apur bat gehiago. Ni urduri nago jada, agian ez dudalako egin nahi dudan karreran sartzea lortzen. Ingelera da beldur gehien ematen didan ikasgaia.

Aitor
Letretako ikaslea

Selektibitatea egin ostean modulu bat egiteko asmoa daukat, eta etorkizunean agian karreraren bat. Nire notak ez dira apartekoak, eta horregatik planteatu dut bide hori. Orain apur bat urduri nago. Filosofia izango da niretzat ikasgairik zailena. Historia egin ordez hori egitea erabaki nuen, historian askoz materia gehiago sartzen delako.

? _GALDERA

Selektibitatea
Zer moduz daramazu selektibitatearen prestaketa?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



Nahikari
Letretako ikaslea

Magisteritza ikasi nahi dut, eta zortzi bat behar dut horretarako. Dena den, ez nago urduri, ez dut uste zaila izango denik lortzea. Daukadan media mantenduta eta azterketa espezifikoak gaindituta lortu dezaket. Baina azterketa espezifiko horietan zerbait txarto egin eta gaindituko ez banu ezingo nuke magisteritzarik egin, modulu bat egin beharko nuke.

Jon
Letretako ikaslea

Urduri baino kezkatuta, asko dagoelako ikasteko. Lehen aukera bezala Ingeles filologia dut ikasteko asmoa, eta horretarako ez dute puntuazio altua eskatzen. Nire burua urduri ikusten dut, gauza gehienak azken momentuan ikasten... ikasle guztiak bezala. Geografia ikasgaiak ematen dit beldur gehien.

Jon Ander
Zientzietako ikaslea

Oso urduri. Azterketak zailak dira eta asko ikasi behar da. Biologia eta historia dira niretzat ikasgairik zailenak, gehien ikasi behar direnak direlako. Errazena euskara izango dela uste dut. Nik erizaintza ikasi nahi dut, baina nota altua eskatzen dute eta ez dakit iritsiko naizen. Ez dut uste oso urduri jarriko naizenik azterketa egitean, baina ikusteke dago.

_gutunak

Ur edangarridun iturria Ermun

Joxe Blanco (Laudio)

Santa Luzia Eguna igaro den honetan, berritasun nabarmena topatu dugu. Izan ere, udal beharginek amaitu berri dituzte ur edangarriko iturri berriko lanak. Badira bi urte Udalak ur edangarria eramateko instalazioen obrei ekin ziela eta bertako bizilagunen etxeetan bazegoen ere, iturri publikoa falta zen. Obra txiki honekin beraz, Ermu aldean ur publikoaren zerbitzua osatzen dela esan daiteke. Isusi eta Ermu auzunetako bizilagun urrien aspaldiko eskaera zen, bertako urak osasun bermerik ez zuelako.

Iturri berria ikustean, ordea, ezin ekidin ur edangarria eramateko egin ziren obrek inguruan sortutako kalteak gogoratzea. Dubirisetik Ermu aldera zihoan antzinako estarta ederra suntsituz 4x4 autoentzako pista zatarra bihurtu zuten ur hoditeria guztia sartu ahal izateko; pago, haritz eta burbuxe ale zahar bezain eder batzuk ebakiz. Bizilagun horien oinarrizko zerbitzu horren eskubideari muzin egin gabe, galdera da ea beste modu baten ezin zen egin, ea gure herriko natur zein kultur ondarea zen estarta haren suntsiketa ezin saihestu... Tira ba, iturri berria txukun geratu da, kareharri landuekin mimoz egindakoa eta jario oparoko bi txorrotadun iturri zaharraren aurrean kokaturik ("ur ez edangarriduna"). Mendizalearen egarria asetzeaz gainera, Santa Luzia egunerako (eguraldia lagun), gure umeek ur jokoetan erabilgarri izan dezaten espero dezagun.

"Bienvenidas a la Selectividad"

Karlota Artetxe Esperanza (Ikaslea)

Selektibitatea. Hitzak berak adierazten duen moduan, "selecciona".

Ikasle bikainen, eta, ikasle txarren aldea areagotu egiten duen azterketa inposatua da.

Inposatua da, azken finean Espainiako Gobernuak ezarritako azterketa orokor bat delako.

Gainera, agerian uzten du ez dela tokian-tokiko beharretara moldatzen, ezberdintasun kutsu hori nabaritzeko nahikoa da euskarazko azterketa eta gaztelerazko azterketa alderatzea.

Gazteleran, ulermena, lexikoa, literatura, adierazpena, eta abar lantzen ditugun heinean lotsagarria da, beste horrenbesteko maila ez eskatzea euskarari dagokionean.

Guzti hori gutxi balitz, esan beharra dago ez dagoela ondo antolatuta edukien aldetik, izan ere ikasleontzat ezinezkoa zaigu urte osoan ikasitako materia guztia berriro ere bi asteetan ikastea.

Kurtso osoan zehar pairatutako estresa eta urduritasuna biziagotu egiten dira selektibitatearen data gero eta hurbilago ikusita.

Selektibitateak beste helburu bat ere badauka, hainbat antzematen ez dena: ikasleen arteko lehiakortasuna bultzatzea.

Azterketa hauek itotzen gaituzte! Horregatik gorroto dugu selektibitatea!

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Aiara

Gorobelen hainbat abere dituzte aiararrek. Argazkia: aiaraldea.eus

Aiara eta Burgos, akordiotik hurbilago

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa

Aiara eta Gorobel Mendizerraren Antzinako Ermandadea maiatzaren 26an bildu zen Burgosek Gorobelen egindako itxierei buruz hitz egiteko. Bertan, Gaztela eta Leongo Juntaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean egindako akordioaren zirriborroa onartu zuten. Aldi berean, Gorobelen ganadua kontrolatzeko enpresaren kontratazioa adostu zuten. Bileraren lehenengo puntua Aiarako eta Burgoseko erakundeek apirilean izandako bileraren inguruan informatzea izan zen. Gainera, ermandadearen eta Burgoseko Batzordearen arteko akordioaren zirriborroa ere onartu zen. Azken hau Gaztela eta Leongo Juntaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean egindakoa da.

Ganaduaren erregularizazioa

Bestalde, Lastras de Teza eta Teza de Losa udalerriek ganadu kopurua erregulatzeko aurkeztutako eskaintza ere aztertu zuten. Bazken ustiapen legearen arabera, Aiarako abereek lursail horietan bazka dezakete eta horregatik hain zuzen ere, Burgoseko hainbat udalerrik proposamen bat esleitu dio anaiarteari. Bertan, ganadu kopurua, datak eta erabili ditzaketen mendiak aipatzen dira, besteak beste. Neurri hori behin-behinekoa izango litzateke, izan ere, azken urte hauetan ganadua eta bazken ustiapena erregulatuko duen araudia egiten ari dira erakundeak.

Arau hori zehazteko aurrera pausuak eman nahian, Gorobel Mendilerroan bazkatzen duen ganadua kontrolatzeko zerbitzua kontratatzea erabaki zen bileran. Gainera, Neiker enpresak Mendilerroaren Kudeaketa Plana egitea adostu zen eta Aialurrek egindako ganadu kopuruaren analisia aztertu zen.

Aiaraldea

Hautesontzi erraldoia egingo du Gure Esku Dago ekimenak Laudion

Plaza bete nahidu berriro Gure Esku Dago ekimenak. aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Eskualdeko ekimena antolatu du Gure Esku Dagok Laudion. Bigarren Joste Eguna deitu diote eta jositako oihalak erabiliz hautesontzi erraldoia osatzea da asmoa, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko. Igandean izango da hitzordua Laudioko plazan 11:00etatik aurrera.

Orozkon ekainaren 5ean josiko dituzte oihalak, 20:00etatik aurrera plazan. 19:00etan, baina, herritarrek egindako bideoa proiektatuko dute Donibane Aretoan. Ekimen horiekin ekainaren 21ean hirietan egingo diren ekitaldietan parte hartzeko deia zabaldu nahi dute.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapen fasea kontsultagai

ERREDAKZIOA |

Aiarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) Aurrerapen fasea onartu ondoren, kontzejuek, elkarteek eta herritarrek, azken hau kontsultatzeko eta zalantzak argitzeko epea ireki du udalak.

Azaldu dutenez, Udalak kontzeju bakoitzari dokumentazioa eman dio. Horrez gain, plano eta dokumentazioaz osatutako erakusketa bat ireki dute eta arkitektoarekin zalantzak argitzeko hitzorduak antolatu dituzte.

Joan den maiatzaren 22an ALHAOn (Arabako Foru Aldundiaren buletina) HAPOaren Aurrerapena argitaratu ostean, Udalak kontzeju bakoitzari azken honekin zerikusia duen dokumentazioa eman zien, azalpen batzuk emanez. Hala, uztailaren 29 arte Plana kontsultatzeko aukera egongo da.

Herritarrei arreta

Herritarrek zein elkarteek HAPOaren inguruko informazioa lortu nahi badute, uztailaren 29 arte asteazkenero 9:30etik 14:00etara plana idatzi duen lantaldeko kide batekin hitzordua eskatu ahalko dute. Bertan, izen-abizenak, telefonoa eta kontsultatu nahi dutena zehaztu beharko dute, lursaila dagoen kontzejua aipatuz. Bestalde, aipatutako epean HAPOarekin zerikusia duten plano eta dokumentazio guztiak udaletxean jarriko den erakusketan egongo dira ikusgai uztailaren 27tik 31arte. Kontzeju bakoitzak zehaztuko du herritarrei aurkezteko erabiliko duten modua.

Koadrilaren hondakinak Jundizeko zabortegira

ERREDAKZIOA |

Arabako Koadrilek -Aiarakoak barne- azken momentuan lortu zuten akordioa Foru Aldundiarekin hondakinak Jundizeko zabortegian botatzeko. Koadrila guztien asmoa Gardelegiko zabortegian uzten jarraitzea zen, Gasteizko udaleko aginduari uko eginez.

Duela hilabete batzuk hasi zen gatazka. Denbora gutxiko tarteakrekin iragarri zien Gasteizko udalak Arabako Koadrilei Gardelegiko zabortegia erabili ordez Jundizekora jo beharko dutela hondakinak uzteko. Horretaz gain, Gasteizko tokiko erakundeak jakinarazi zien koadrilei tona metriko bakoitza isurtzeagatik gehiago ordaindu beharko zutela. Hain zuzen ere, 45,05 euroren ordez 68,56 eurokoa izango da tasa berria. Hau da, lehengoarekin alderatuta % 50 igo diete Arabako kuadrilei zerga.

Ekainaren 1ean, azken unean, erabaki zuen Arabako Foru Aldundiak zerbitzuko igoera hori gauzatzea.

_herriz herri

Amurrio

EUSKAL JAIA eta EUSKARAZ BIZI NAHI DUT EGUNA: Aurten bi ekimenak bateratu dituzte eta herritar askok parte hartu dute. Antolatutako ekitaldien artean nabarmentzekoa izan zen Euskal Ezkontza, oso ekimen parte-hartzailea izateaz gainera, jende askoren arreta erakartzen baitu.

Gazte Alaiak urteko jaia ospatuko du larunbatean

ERREDAKZIOA I Uxue Tomé

Gazte Alaiak Amurrioko Aisialdi Zentroak –Apdema– urtero ospatzen duen jaia antolatu du. Ospakizuna larunbatean, ekainaren 6an, izango da Aresketa Ikastolan. Gasteizko, Laudioko eta Arabar Errioxako Apdemako zentroak gonbidatu dituzte jaira. Modu berean, Menagaraiko Amor Misericordioso Zentroa, Orozkoko Ibarrako Jesús María Eskola (M.M. Mercedarias) eta Bilboko Aisialdi Zentroa ere izango dira.

Guztira, 400 pertsona inguru elkartuko dira xede bakarrarekin: aniztasun funtzionala dutenpertsonen integrazioa jai eremura eramatea. Antolakuntzak Apdemako gazte eta adinekoen edo elkarte honekin zerikusia duten pertsonen arteko bilgune eta bizikidetza gunea sortu nahi du.

Arabako dantzari egunak euskal dantzaz beteko du igandean plaza

ERREDAKZIOA I

Arabako XXXVIII. Dantzari Eguna ospatzeko Amurrio hautatu dute aurten. Egitaraua 12:00etan hasiko da, Amurriora hurbiltzen diren talde arabar guztiei harrera eginez.

Juan Urrutia plazan ez ezik hainbat lekutara hedatuko da jai giroa. Horrela, 12:30ean dantzariek kalejira egingo dute herritik eta 13:00etan hainbat plazatan sakabanatuko dira erakustaldi ezberdinak egiteko.

Gosea piztu ostean herri bazkaria egingo dute, eta arratsaldeko 16:30ean erromeriaren txanda helduko da Orots taldearen eskutik.

Arabako Dantzarien Biltzarrak antolatuko du eguna, Foru Aldundiak babestuta. Amurrioko Udalak eta Euskal Dantzarien Biltzarrak ere lagundu dute.

TXAKOLIN EGUNA: Txakolin ekoizleek bere produktua plazaratzen dute urtero Amurrion, eta horretarako jai eguna prestatzen dute. Maiatzeko azken igandean txakolin zaleek Amurrioko kaleak bete zituzten prestatutako egitarau oparoan parte hartuz. Argazkia: Josemi Llano

Laudio

Autokarabanarekin lantegi aurrean jarri da kaleratuetako bat /aiaraldea.eus

Gometegui grebaren atarian, zortzi langile kaleratu ondoren

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado

Greba atarian dago Gometegui enpresaren Laudioko lantegia[1], egondako kaleratzeengatik. Zortzi langile kaleratu zituen enpresak iragan astean. Langileetako bat akordio batera iritsi zen zuzendaritzarekin, baina beste zazpiek "ez konforme" sinatu zuten kaleratzea. Hala adierazi du kaleratutako langile horietako bat den Joaquin Martinez Borrajok. "Bat-bateko kontua izan da, ez genuen espero", azaldu du. Kaleratzearen berri jaso bezain laster, autokarabana hartu eta lantegiaren parean jarri zen Martinez. Hor jarraitzen du, langileen berronartzea aldarrikatzen.

Bilerak, fruiturik ez

Astelehenean eguerdian bildu ziren Gometeguiko gerentea eta Langile Batzordea, gerenteak hala eskatuta. Martinezek azaldu duenez, gerenteak lau langilerentzako "konponbide[2] indibidualak" planteatu zituen bilera horretan, "baina inolako bermerik[3] eman gabe". "Bati oraindik existitzen ez den enpresa batean sartzea proposatu diote", azaldu du autokarabanan dagoen langileak

Hortaz gain, kaleratutako langileak adierazi du gerenteak adierazi zuela ez zuela bilera gehiago egiteko asmorik, "nahiz eta Enpresa Batzordea horretarako prest agertu". Hori dela eta, greba mugagabea egiteko deialdia zabaldu zen. Gaur (ekainak 4) zen greba hori hastekoa, baina azken momentuan atzeratzea erabaki da.

Hiztegi lagungarria

Lantegia[1], fabrika / Konponbide[2], soluzio / Berme[3], garantia

PATXO ETA ISIDRO MURGA: Ehunka pertsona elkartu ziren astelehenean Laudioko herriko plazan Patxo eta Isidro Murga euskal preso politiko ohiei harrera egiteko. Eskualdeko jendea ez ezik, 18/98 auziaren harira epaitutako kideak ere hurbildu ziren.

San Roke Jaiak iragartzeko kartel irabazleak hautatu dira

ERREDAKZIOA I

Amurrion bezala, Cristóbal Aguiló Domínguez Murtziako diseinatzaileak irabazi du Laudioko Jaietako Kartel Lehiaketa helduen kategorian eta 1200 euroko saria lortu du. Umeen Kartel Lehiaketako garailea, aldiz, Irati Alonso Ojembarrena izan da. Kasu batean zein bestean epaimahai teknikoak eta herritarrak batera erabaki dute.

Indarkeria matxistaren aurkako protokolo berria onartu dute

ERREDAKZIOA I

Laudioko udalbatzak indarkeria matxistaren aurkako protokolo berriari oniritzia eman dio. Orain arteko protokoloa barne egiturei zegokion, onartu berriak kanpoko eragileekin elkarlana sustatuko du.

Horrela, ikastetxeekin, Osakidetzarekin, emakume elkarteekin, erakunde judizialekin eta Ertzaintzarekin bitartekoak parte-katuko dituzte udal zerbitzuek eta udaltzainek.

Protokolo berria eta diagnostikoa idazteko 15.245 euro bideratu ditu udalak baina Emakundek %75 lagundu du diruz, 11.434,50 eurorekin hain zuzen.

Horretarako hainbat elkarrizketa gauzatu ditu Red Kuorum enpresak 2013 eta 2014. urteetan. Besteak beste, zerbitzuak erabiltzen dituzten 15 emakumerekin mintzatu dira kudeatzaileak. Hori dela eta, Helena Ortiz de Lejarazu soziologoak azaldu zituen elkarrizketa horien ondorioak maiatzaren bukaeran egindako udalbatzan.

Areta

Habeas Corpus taldeak joko du Aretan. aiaraldea.eus

Habeas Corpus, Emon eta Patxi Perezek dantzan jarriko dute Areta

ERREDAKZIOA I Lucía Menoyo

Musikaz lepo datoz aurten ere Aretako Jaiak. Ostiralean, uztailaren 24ean, hasiko da kontzertu sorta. Habeas Corpus talde madrildar ospetsuak hardcore doinuak ekarriko ditu eta Garilak 26 bizkaitarrekin ere gozatzeko aukera izango da.

Larunbatean hiru musika talde hurbilduko dira Aretara: Esne Potak laudiarrak, Sua izeneko disko berria aurkezten ari den Emon taldea eta ohiko dantzaldi alaia ekarriko duen Akerbeltzek.

Jaien azken egunean, igandean, euskal dantzen ordua izango da, eta jendeak parte har dezan dantza plaza didaktikoa antolatu du Jai Batzordeak Patxi Perezekin.

Jaiak diruz laguntzeko enkantea

Bestalde, aurreko urteetan bezala, jaiak diruz laguntzeko enkantea prestatu du Aretako Jai Batzordeak. Ekimena ekainaren 7an izango da, 13:00etan, Elizaren ondoan dagoen Plaza Berrian. Hala, herritar bakoitzak etxean prestatutako jaki edo objektuak eramango ditu. Zozketatuko diren loteak 12:00etatik aurrera izango dira ikusgai.

Hiztegi lagungarria

Ekimen[1], iniziatiba/ helmuga[2], helburu/ oihal[3], ehun, tela/ ehundu[1], eratu.

Bitorika harrobiko lurjausiak saihesteko lanak abiatu dituzte

Astelehenean hasi ziren Bitorikako harrobian gertatzen diren lurjausiei aurre egiteko lanak. Fase ezberdinak izango ditu obrak. Hasteko, goiko aldean erori daitezkeen elementuak kenduko dituzte: harriak, zuhaitzak eta lurra.

Horren ostean pantaila dinamikoa instalatuko dute, Bakiolako bihurgunean erabilitako teknika berarekin. Lau metroko altuera izango du eta altzairuzko sarearen bitartez ekidingo du erortzen diren gauzek kalteak sortzea. Horretarako pantaila osatzen duten elementuak deformatu egingo dira inpaktua jasotzen dutenean.

Lanak egingo dituen enpresa berak ikerketa gauzatu beharko du behin betiko konponbidea proposatzeko Bitorikako harrobian. Bitartean aparkalekua irekiko dute berriro.

Lanak hasi dituzte.

Orozko

Umeen galderak erantzun zituzten nagusiek. Orozkoko udala

Nagusien jakintza umeei transmititzeko dinamika abian

ERREDAKZIOA I Lukas Pasandin Sanchez

Orozkoko eskolak eta Udalak elkarlanean, nagusienek txikienei jakintza transmititzeko dinamika abiatu dute. Asmoa antzinako bizitzaren berri gazteenei ematea da. Horretarako, lehenengo saioan, Mari Carmen Olaguenaga, 80 urtetako etxeko andrea, eta Vicente Goti, 84 urtetako artzain erretiratua, izan dira protagonista. Lehen hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleekin elkartu dira haien bizipenak azaltzeko; gaztaroan zituzten bizi baldintza makalak, gerra eta gerraostea, beraien lanbide gogorrak garai horretan... Bestalde, ikasleek garai hartako bizitzari buruz asko galdetu dute, besteak beste, Gorbeian internetik ba ote zegoen.

Begiraleak kontratatzeko epea ireki dute

ERREDAKZIOA I

Udalekuetako proiektu irabazlea hautatu ostean, begiraleak kontratatuko ditu Orozkoko udalak. Horretarako epea ekainaren 2an ireki zuten, eta kurrikuluma udaletxean uzteko epea ekainaren 16an bukatuko da.

Zenbait baldintza zehaztu ditu udalak balizko begiraleentzat. Hasteko Lanbiden izena eman behar dute. Horretaz gain euskarazko froga gainditu beharko dute.

Ustelkeriaren aurkako akordioa sinatu dute

ERREDAKZIOA I

Maiatzaren erdialdean egindako udalbatzan Orozkoko alderdiek ustelkeriaren aurkako akordio zorrotza onartu zuten. Ondorioz, udal ordezkariek modu aktiboan parte hartuko dute ustelkeriaren kontrako borrokan. Horretaz gain, dimisioa aurkeztu beharko dute giza eskubideen aurkako delituen inguruko salaketak jasoz gero. Akordioa gardentasunaren aldeko apustua da.

Urduña

Frankismoko biktimen gorpuak topatzeko indusketekin jarraitu nahi du udalak

ERREDAKZIOA I

Urduñako hilerrian indusketetan topatutako 14 gorpuak frankismoko biktimenak direla ziurtatu du Aranzadi Zientzia Elkarteak. Abuztuaren amaieran altxatu zituzten gorpuak eta aztertu ostean hilerriaren sarrerako eskuineko aldean errepresio frankistak eraildako jendea lurperatua dagoela baieztatu dute. Momentuz 14 dira ikertutako gorpuak. Gizonezkoak eta helduak dira guztiak. Lourdes Herrasti antropologoak txostenean azaldutakoaren arabera, litekeena da lurzoru horren azpian era horretako gorpu gehiago egotea.

Egun, ordea, horma-hilobiz josita dago eremua. Horregatik, ikerketak segida izateko proiektua aurkeztuko du Urduñako udalak Euskko Jaurlaritzan eta Bizkaiko Foru Aldundian. Era honetan nahi dute Memoria Historikoa landuz, Urduñako hilerrian lurperatutako presoen gorpuak ikertu eta familiei berreskuratzeko aukera eskaintzea. Horrek, aurrez, identifikazio eta ikerketa antropologiko zein genetikoa egitea ekarriko luke. Eta, gaur egungo horma-hilobiak lekuz mugitzea. Baita identifikatu gabeko gorpuak edo familiek "ukatutakoak" gordetzeko panteoi baten eraikuntza ere. Proiektua onartuz gero, senideei gorpuen hondarrak entregatzeko eta ikerketa publikoki aurkezteko ekitaldi bat egiteko asmoa iragarri du udalak.

Espetxeak gordetako historia

1937-1941 artean presondegia egon zen Urduñan, kontzentrazio esparrua izan baizen hiri bizkaitarra. 50.000 gerra-preso errepublikar giltzapetu zituzten.

GOROBEL
Fisioterapia
BULARREKO KOLIKOAK
MASAILEZUR DISFUNTZIOA
ARNASKETA FISIOTERAPIA
JARRERA BERREZITZE GLOBALA
LOTAILU ETA MUSKULU LESIOAK
T. 945 71 28 31
M. 695 83 17 86
Gernika plaza, 8 baxua
URDUÑA (Bizkaia)

_jendartea

Ezbaian dagoen hezkuntza sistemaren argi ilunak

LOMCE legea onartu zen 2013an. Aurten, berriz, Heziberri 2020 plana garatu du Eusko Jaurlaritzak, eta EAEko 30 ikastetxetan Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleentzako frogazko azterketa bat egitea aurreikusi du. Aiaraldeko guraso, ikasle eta irakasleak biltzen dituen Gure Hezkuntza plataforma, baina, plan horren aurka azaldu da, LOMCErekin antzekotasun asko dituela argudiatuta.

ERREDAKZIOA I
Txabi Alvarado Bañares

2013ko azaroan onartu zen PP-ren botoekin Espainiako Kongresuan Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoa, LOMCE. Orduz geroztik ugariak izan dira lege horren aurkako jarrera azaldu duten hezitzaile, ikasle zein gurasoak. Erlijioak hartzen duen indarra, lehen eta bigarren hezkuntzako errebalidak, eskola kontseiluari boterea kentzea... ugariak dira LOMCEk dituen puntu gatazkatsuak. "Lege horretan aipatzen diren gauzetako asko nire garaian jaso genuen hezkuntzara bueltatzea dakarte". Hala adierazi du Aiaraldeko Gure Hezkuntza Plataformako kide den Ane Landetak.

Lehen Hezkuntzako 3. mailako umeei errebalida azterketak jartzea planteatzen du Heziberrik.

Eurite bortitza baino, zirimiria

Hasi dira ikastetxeetan ikusten Hezkuntza Erreforma horren ondorioetako batzuk, Amurrion Lehen Hezkuntzako irakasle moduan lan egiten duen Asier Erraztiren ustez. "Ingurunea ikasgaia desagertu egin da", azaldu du irakasleak, "erlijioari dagokionez, ikasturtea hasita zegoela txosten bat iritsi zitzaigun Eusko Jaurlaritzatik, zeinetan jokaera zibilen inguruko ikasgaiaren ildo orokorrak azaltzen ziren (erlijioa hautatzen ez duten ikasleek derrigorrean hartu beharreko ikasgaia)". Erraztiren iritzi, erreforma ez da "euri bortitz[1] bat" izaten ari, "apurka apurka bustitzen duen zirimiri baten modukoa baizik".

Eusko Jaurlaritzak bi helegite[2] jarri zizkion legeari. "Eskola kontseiluari boterea kentzea arbuiatzen[3] zuen helegiteetako batek, eta gaur egun dagoen eredua defendatzen zuen". Ane Landetaren esanetan, bigarren helegiteak euskararekiko gaur egun dagoen hizkuntz eredua mantentzea defendatzen zuen.

"Heziberri 2020" plana

Helegitea jartzea ez da izan Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren erreformari begira egin duen gauza bakarra. "Heziberri 2020" izeneko hezkuntza plana ere jarri du martxan.

"LOMCEk indarrean jarriko dituen zenbait neurri txar saihesteko asmoarekin" sortutako plana da hori, Cristina Uriarte Hezkuntza Kontseilariaren esanetan. "Hezkuntza hobetzeko plan moduan aurkeztu dute", azaldu du Erraztik, "plan horrek ez du LOMCE inondik inora aipatzen, baina puntu ilun asko ditu".

Harago doa Landeta: "Heziberrik oinarritzat hartu du LOMCE legea, ez die hemengo jendarteko beharrei erantzuten". Errebalidena da, hezkuntza plan horrekiko aurkakotasuna adierazi dutenentzako punturik ilunenetariko bat. Aurten EAEko 30 ikastetxe hautatu dituzte Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan horrelako azterketa bat egiteko, "proba pilotu" moduan. "Datorren ikasturtean 6. mailan ere egitea aurreikusi dute, eta ikastetxe guztietan", jakinarazi du Landetak.

Erraztiren ustez, proba horiek ez dira egokiak 3. mailan ikasten dabilen ume batentzako. "Probak ikusteko aukera izan dutenek diote erabat anti-pedagogikoak direla".

Horrelako azterketa batek ikaslearengan sekulako presioa sortzen duela gaineratu du Amurrioko Zaraobe Institutuan ikasten dabilen Unai Isasik.

"Eusko Jaurlaritzak dio probak ez duela ebaluazio orokorrean ondoriorik ekarriko", gaineratu du Erraztik, "Zergatik egin orduan? Zergatik ari dira guztia ezkutuan egiten? Ez dut uste gure ikasleek halakorik merezi dutenik".

"Heziberri 2020" hezkuntza plana aurkeztu du jaurlaritzak, eta probazko errebalida bat jartzeko asmoa du EAEko 30 ikastetxeetan

Ekainaren 10erako errebalida horren aurkako mobilizazioa deitu dute eskualde mailan

Desobedientziaren bidea

Datozen hezkuntza erreformen aurrean "hezkuntza sistema propioa" aldarrikatzeko sortu zen Aiaraldeko Gure Hezkuntza Plataforma, iaz. "Eskualdeko ikastetxeetan hitzaldiak egiten hasi ginen", oroitu du Landetak. Ez dira horretara mugatu: sinadura bilketak, udaletan mozioak aurkeztea... bide ugari jorratu ditu irakasle, ikasle zein gurasoak biltzen dituen plataformak.

Hirugarren mailako azterketen aurrean zer egin aztertzen ari dira orain. "Intsumisioa planteatu zen", azaldu du Erraztik, "baina ondo neurtu behar dira horrelako borroka batek izan ditzakeen ondorioak". Landetak, bere aldetik, adierazi du ez dutela intsumisioa planteatzen, baizik eta "bide guztiak" jorratzea azterketa hori egitea ekiditeari begira.

Borroka horretan ikasleek "paper garrantzitsua" jokatzen dutela adierazi du Isasik, baina gaineratu du "hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa" beharrezkoa dela.

Aldarrikapen horiek guztiek ekainaren 10ean egingo dute bat, Laudion 18:00etan egingo den eskualde mailako mobilizazioan.

Hiztegi lagungarria

Bortitz[1], biolento / Helegite[2], errekurtso / Arbuiatu[3], gaitzetsi

Ane Landeta
Gure Hezkuntza plataforma

"3. mailako errebalidari begira ez dugu intsumisioa planteatzen, tokian tokiko erantzunak bilatu behar dira, bide guztiak jorratuaz"

Asier Errazti Ibabe
Lehen Hezkuntzako irakaslea

"Hezkuntza erreforma apurka-apurka ari dira sartzen. Baina ikastetxeetan hasi gara jada LOMCEren ondorioak nabaritzen"

Unai Isasi
Ikasle mugimenduko kidea

"Ikasleok paper garrantzitsua dugu LOMCE desobeditzerako orduan, baina hezkuntza komunitatearen babesa behar dugu horretarako"

“Gurasoen esku dago Hezkuntza Erreformari ezezkoa ematea”

IRUNE BARRENENGOAk (Laudio) bi seme-alaba ditu. Gure hezkuntza plataforman parte hartzen duen gurasoetako bat da.

Bi umeren ama da Irune Barrenengoa. Argazkia: Aiaraldea.eus

“Guraso kezkatu” moduan Gure Hezkuntza plataforman hartzen duzu parte.

Hala da. Taldean eskolara plataformako bi kide bertaratu zirelako eta hitzaldi bat eman zutelako sartu nintzen. Aurkezpen hitzaldi bat izan zen, LOMCEk zertan datzan azaltzea helburu zuena. Bertan aipatu zuten batez ere gurasoon esku dagoela horri aurrea egitea, eta jakinarazi zuten plataforma bi astean behin elkartzen zela, eta ea bertaratzera animatzen ginen.

Momentu horretan erabaki nuen probatzea eta bilera batera joatea. Aiaraldeko hainbat irakasle daude plataforman. Lehen guraso gehiago zeuden plataforman, eta batzuk oso interesatuak daude, baina denbora faltagatik ezin dute parte hartu. Hori dela eta, gurasoak plataforman parte hartzera animatu nahiko nituzke.

Heziberrik planteatzen duen Lehen Hezkuntzako 3. mailako errebalidaren aurkako borrokan murgildua dago plataforma orain.

Plataformatik planteatzen dena azterketa horri planto egitea da. Proba horri ezetza emateko orri batzuk egin dira, gurasoek bete ditzaten. Sinadura horien bitartez adierazten da proba horren aurka gaudela, planto egiten dugula eta ez dugula proba hori egin nahi. 3. mailako guraso batzuek bete dute jada orri hori, baina nik uste dut beste gurasoei ere zabaldu daitekeela nahiz eta seme-alabak maila horretan eduki ez. Gauza zabal bat izan beharko litzateke.

“Errebalidak ez badu ondoriorik izango, azterketa hori egiten den egunean gure umea gaixorik jartzen bada ez da ezer gertatuko”

“Mugitzeko eta elkartzeko unea da, nahiz eta gure seme-alabei agian ez egokitu proba egitea. Elkartasun kontu bat da”

Espainiatik datorren legea da LOMCE, baina hemengo instituzioek ere ez diote ezetz esan. Beste eredu bat planteatu dute, Heziberri izenekoa. Baina badirudi ez dela LOMCErekiko horren ezberdina. Ez dut instituzioen partetik ezetz argirik ikusten, ez delako egon. Jokoan gauza asko daudela uste dut: gure seme alaben hezkuntza, etorkizuna eta pentsatzeko askatasuna...

Horretaz gain, ez dut ulertzen 8-9 urteko ume batek zergatik egin behar duen azterketa bat, sailkatu egingo duen azterketa bat gainera. Ez diot zentzurik ikusten. Teorian, hezkuntzak ziurtatu behar duena da behar ezberdinak dituzten ume guztiei heltzea. Hor ezin da inor eskegita geratu.

Hortaz gain, curriculumean planteatzen diren helburu batzuk nire ustez oso-oso urrun daude gure kulturatik. Ez dute gurekin zer ikusirik. Ez dute gure kultura errespetatzen. Ulertu dezaket zergatik planteatu duten hori, baina nik uste dut guk guraso bezala zerbait esan behar dugula. Badakigu egin duten lege hori organikoa dela eta teorian bete egin behar dela uste dut behintzat esan beharko genukeela ez gaudela ados.

Zentzu horretan, zein izan daiteke gurasoen egitekoa?

Zer egin? Hortik desobedientzia hitza aipatzen da, eta uste dut horrek pilo bat beldurtzen gaituela. Hainbat aukera entzun ditut. Horietako bat izan daiteke errebalidaren eguna iristen denean umeak etxean geratzea edo ikastetxean bertan beste ekintza batzuk planteatzea.

Nik uste dut adierazi egin behar dugula ez dugula hori nahi. Beste guraso batzuekin hitz egin ostean, nik uste dut gehiengoa horren aurka gaudela. Zer egin planto egitearen papera sinatzeaz aparte? Ba gure seme-alabak proba hori egiten den egunean ikastetxera ez eramatea. Instituzioek diotenaren arabera badirudi proba horren (3. mailako errebalidaren) proba ez doala inora. Kasu horretan, gure umea azterketa egiten den egunean gaixorik baldin badago eta klasera ez badoa ez da ezer gertatuko, gure ardurapean daude. Hori da, nire ustez, egin dezakeguna.

Nola lor liteke hori, ordea? Zein da horretarako gakoa?

Batez ere uste dut elkartu egin behar garela eta bestearen tokian jarri. Gure seme-alabari aurten halakorik egitea egokitzen ez bazaio ere besteren bati egokituko zaiolako. Behin legea martxan jarrita beste proba batzuk egokituko zaizkio.

_LOMCEren puntu batzuk:

ERREBALIDAK
Ikaslearen ibilbidea bideratzeko errebalida azterketak ezartzen ditu Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan.

ERLIJIOA
Erlijioa eman beharreko ikasgaia izango da. Egin nahi ez dutenek balio zibikoei buruzkoa egin beharko dute.

EUSKARA
Murgiltze eredua bertan behera uzten du. Euskara enborreko ikasgaia izateari uzten dio. Eusko Jaurlaritzak helegitea jarri dio puntu horri.

MATEMATIKA
DBH 2. mailan matematika aplikatuak edo akademikoak hautatu beharko dira. Hautatzen dutenaren arabera bide ezberdinak izango dituzte ikasleek.

SEGREGAZIOA
Sexuaren araberako bereizketa egiten duten ikastetxeei diru-laguntzak emateko debekua kentzen du.

KONTSEILUA
Eskola kontseiluen eskumenak murrizten ditu. Eusko Jaurlaritzak helegitea jarri dio puntu horri.

EDUKIAK
Hezkuntza Ministerioak zehaztuko ditu adarreko ikasgai guztien edukiak, eta espezifikoen ildoak ezarriko ditu.

IKASGELAK
Ikasgela bakoitzean dagoen ikasle kopurua %10 igotzea aurreikusten du LOMCE legeak.

Dorretxeak: Aiaraldea gobernatzen zutenen botere ikur

64 dorretxe eta jauregik diraute zutik. Garai batean gehiago ziren, baina laurdena gutxi gorabehera galdu dira. Aiaraldeko jauntxoen arteko bandoen gerra odoltsuen testuinguruan eraiki ziren, eta jauregi izateko moldatu ziren gero, liskarrak baretu zirenean.

ERREDAKZIOA I Dani Luengas

Dorretxea Behe Erdi Aroko jauntxo baten boterearen ikurrik bereizgarriena eta ikaragarriena zen, leinuko kideen etxea izateaz gain defentsarako eraikitako gotorleku sendoa baitzen. Harrizko lau hormez osatutako eraikin altu hauetatik Ahaide Nagusiek, leinuetako buruzagiek, eskualdeetako bideak eta lehengaiak kontrolatzen zituzten. Batetik, lurraldeko puntu geo-estrategikoak kontrolatzen zituzten: errepide nagusiak, zubiak edota hiribilduetako ateak, esate baterako. Bestetik, familiaren ondasunak kudeatzeko administrazio zentroak ere bihurtu ziren. Horregatik, jauntxoek euren dorretxeak errota, burdinola, kapera, meatze edo basoetatik hurbil eraiki zituzten, euren errenta iturrietatik hurbil hain zuzen.

Dorretxe gehienak XIV. eta XV. mendeetan eraiki ziren, Bandoen Gerra garaiko urte bortitzenetan. Behe Erdi Aroan, krisi ekonomikoa eta hiribilduen sorrera zirela eta, Ahaide Nagusi askoren diru-sarrerak asko murriztu ziren. Haien errenta kopurua mantentzeko bide bakarra ondoko lurraldeetako jauntxoekin borrokatzea eta euren lurraldeak zabaltzea izan zen. Gutxika, eskualdeetako lis-

kar puntualak lurraldeko gudu bortitz bihurtu ziren. Hainbat jaunen arteko aliantza sistema konplexu bat eratu zen eta aurkako bi bando edo alderdi nagusi eratu ziren: oinaztarrak eta ganboatarrak.

Bandoen gerra

Aiaraldearen kasuan, eskualdea Ayalako jaunaren menpean zegoen; ganboatarren aldeko familia boteretsua zen harena. 1328. urtean, Juan Sanchez de Salcedo ondorengorik gabe hil zenean, Ayala familiaren bigarren mailako bi alderdien arteko gerra hasi zen jaurerriaren kontrolagatik. Bi alderdi horien buru Sancho Garcia de Murga, Murgako Dorretxearen Jauna, eta Sancho Perez de Ayala jarri ziren. Aiarako jauntxo txikiek ere ondorengotza gerra horretan parte hartu zuten, alde batean ala bestean, eta euren buruak babesteko dorretxeak eraiki behar izan zituzten. Azkenean, Sancho Perez de Ayalak irabazi zuen gerra, eta familiaren buruzagitza hartu zuen. Hain zuzen ere, haren ondorengoak izan ziren Kexaako oinetxea eraiki zutenak, hainbat garaitan altxatutako eraikin multzo konplexua.

Dorretxe gehienak XIV. eta XV. mendeetan eraiki ziren, Bandoen Gerra garaiko urte bortitzenetan

Lehenengo mailako liskarrak ez ezik, Ayalako jaunaren menpean zeuden ahaide txikien arteko borrokak ere suertatu ziren

Liskar odoltsuak

Lehenengo mailako liskarrak[1] ez ezik, Ayalako jaunaren menpean zeuden ahaide txikien arteko borrokak ere suertatu ziren. Esanguratsua da Orozko-Laudio aldean Anuncibay eta Ospina de Ugarte familiek izan zituzten tirabirak[2]. Lehengoek Orozkoko sarreran zuten dorretxea, egungo jauregi modernoaren aurrean, zubiaren beste aldean. Ospina de Ugartekoek, aldiz, Laudion zuten gotorlekua, oraindik ere zutik dirauena.

Gure eskualdeko hiribilduek ere Bandoen Gerraren basakeria jasan behar izan zuten. Normalean

_eraikin esanguratsu batzuk

AYALATARREN OINETXEA

Tipologia: Erantsitako jauregidun kapera-dorretxea
Familia: Ayala (Ganboatarrak)
Eraikuntza-faseak: -1399-XVI-XVIII-XX
Udalerria: Aiara (Kexaa)
Oharrak: XX. mendeko eraberritze lanetan balio historiko handiko elementu ugari suntsitu ziren.

MURGA DORRETXEA

Tipologia: Erantsitako jauregidun dorretxea
Familia: Murga (Ganboatarrak)
Eraikuntza-faseak: XIV- XVI
Udalerria: Aiara (Murga)
Oharrak: Murgatarrek eta Ayalatarrek eskualdearen kontrolagatik gatazka ugari izan zituzten Behe Erdi Aroan, nahiz eta jatorri berdintsua izan.

NEGORTA DORRETXEA

Tipologia: Jauregi bihurtutako dorretxea
Familia: Ezezaguna
Eraikuntza-faseak: XVI-1996
Udalerria: Aiara (Zuhatza)
Oharrak: Jatorrian defentsarako dorretxea izan arren, egun gordetzen diren elementu arkitektoniko gehienak jauregi batenak dira.

ARTOMAÑAKO DORRETXEA

Tipologia: Dorretxea
Familia: Zarate (Ganboatarrak)
Eraikuntza-faseak: XV
Udalerria: Amurrio (Artomaña)
Oharrak: Jatorrian dorretxearen aurrealdean beste etxe -gotor bat zegoen, dorretxearen goiko sarbidearen eskailera babesten zuena. Bi eraikinak zubi batek lotzen zituen.

OTXANDURIKO DORRETXEA

Tipologia: Jauregi bihurtutako dorretxea (erabat eraberritua)
Familia: Ezezaguna
Eraikuntza-faseak: XVI-XX
Udalerria: Arrankudiaga
Oharrak: Zoritxarrez, eraikina erabat eraberritu zen XX. mendearen bukaeran. Elementu arkitektoniko asko suntsitu ziren.



Aiaraldeko dorretxe eta jauregien mapa. Argazkia: Dani Luengas

alderdi bakoitzak hiribilduaren zati bat kontrolatzen zuen. Horregatik, dorretxeak eraiki zituzten kontrolpean zuten hiriko zatiaren mugetan (kaleen hasieran eta hiribilduen ateen ondoan), haien eragin esparrua zehazteko eta babesteko. Urduñaren kasuan, hirian ezarrita zeuden aurkako bi alderdiak Zalduendotarrak eta Castrotarrak ziren.

Lehengo bandoaren buruan Salazar de Largacha familia zegoen, Enkarterrietako Salazar familia boteretsuaren senitartekoak. Castro aldearen buruzagiak Velascotarrak ziren, Burgoseko ipar-ekialdeako agintariak, eta Salazartarren arerioriik sutsuenak[3]. Jauntxo horiek eraiki zituzten dorretxeen arrastorik gelditzen ez den arren, haien ondorengoek altxatutako jauregiek diraute: Velasco, Mimenza eta Ortes de Velasco jauregiek.

Bandoen Garaiko urterik odoltsuenak XV. mendeko erdialdean bizi izan ziren, Arrasate hiribildua erre zenean. Egoera jasangaitz horri aurre egiteko, Gaztelako erregea zen Enrique IV.ak ahaide nagusien erbesteratzea eta haien dorretxeak botatzea agindu zuen, baita gotorleku berriak altxatzea debekatu ere. XV. mende bukaerarako liskarrak ia baretuak[4] zeuden eta Ahaide Nagusiek errenta iturri berriak bilatu zituzten, merkataritzan eta administrazioko lanpostuetan gehienbat. Hori dela eta, jauntxoak forma arkitektoniko berriak eraikitzen hasi ziren, euren estatus sozialaren ikur zirenak. Dorretxearen forma idilikoa abiapuntutzat zutela, lehenengo jauregiak agertzen hasi ziren, hobeto prestatutako eta bizigarritasun gehiagoko erakinak.

Hiztegi lagungarria

Liskarra[1], gatazkak / Tirabirak[2], gatazkak / Sutsuenak[3], tematuenak, handienak / Baretu[4], lasaitu



Aldaketa handiak izan dituzte eskualdeko dorretxeek / Dani Luengas

Dorretxeetatik jauregietara, hainbat mendeetako bilakaera

ERREDAKZIOA I Dani Luengas

Behe Erdi Aroko jauretxeek bilakaera tipologiko ikusgarria izan zuten, eraikin defentsiboak izatetik, etxebizitza eroso eta jauregitarrak izatera pasatu baitziren hamarkada gutxi batzuetan.

Jatorrizko dorretxeak oso eraikin altuak ziren. Normalean 17-20 metrotako altuera izaten zuten. Hau da, gaur egungo 6 solairuko etxebizitza baten adinako altuera. Neurri horietara iristeko, horma sendoak behar zituzten, metro bat baino gehiagoko lodierakoak. Barrualdean, zurezko egitura batek eusten zituen solairuak. Batzuetan, hormen goiko aldean almenak zeuden, harrizko irtenune bertikalak; beste batzuetan, aldiz, "kadaltso" izeneko egurrezko eraikuntza bat zuten hormen goiko parte horretan. Dokumentu historikoen arabera Ugarteko dorretxeak kadaltso bat izan zuen jatorrian.

Dorretxe zaharrenek lehenengo solairuan zuten sarrera, lurretik 6-8 metrotara. Ate horretara iristeko egurrezko eskailera bat jartzen zen eta eraikinak erasoren bat jasaten zuenean kentzen zen, arerioak barrura sartzea eragozteko. Eraikuntza horiek leiho gutxi izaten zituzten: gezileiho defentsiboak eta ojiba arkudun leihoren bat. Familia gerrazaleenek harresi bat eraikitzen zuten dorretxearen inguruan, gaztelua bailitzan.

Enrique IV.ak ahaide nagusien dorretxeak bota eta berrik eraikitzea debekatu zuenean, zenbait jauntxok euren dorretxeak eraberritzea eta jauregi bihurtzea erabaki zuten. Eraikinei altuera murriztu eta leiho gehiago eta handiagoak jarri zizkieten, argiztapen gehiago izan zezaten. Aiaraldean, Zuhatzako Negorta dorretxea eta Okondoko Zudubiarte dorretxea tipologia horren adibide garbiak dira.

Beste jauntxo batzuek, aldiz, dorretxeei jauregi formako eraikinak erantsi zizkieten. Jauntxo batzuek jauregia dorretxearen inguruan eraiki zuten, defentsarako harresi perimetrala aprobetxatuz, Murgako eta Ugarteko dorretxeetan gertatzen den bezala. Beste batzuek, ordea, eraikin berria dorretxearen albo batean altxatu zuten. Molinillo de Velascotarrek hala egin zuten Artziniegan Ayalatarren dorretxearekin.

Jauretxeen nagusitzea

Bandoen Gerra baretu ahala, gero eta dorretxe gutxiago eta jauregi gehiago eraiki ziren. Dorretxeak ez bezala, jauregiak mendi magaletan eraiki ziren, bide nagusietako lekurik argitsuenetan. Hiribilduetan, tokirik pribilegiatuenetan (herriko plazetan, kale nagusietan...) altxatu ziren, jabearen izatea eta ospea goraipatzeko. Dorretxeekin alderatuta eraikin baxuagoak ziren, 8-10 metrotakoak, baina askoz ere zabalagoak. Leiho ugari zituzten, galeriak eratuz, baita erdi puntu-arkuko sarrera handiak ere. Orokorrean, xehetasun handiagoko eraikinak ziren, dorretxeak baino ornamentu gehiago zituzten eta hormak hobeto landuak zituzten.

Hortik aurrera jauregien tipologia garatuz joan zen. Hurrengo mendeetan Berpizkundeko jauregiak eta jauregi barrokoak agertu ziren, garai bakoitzari egokitutako eraikuntza tipologia berriak. Baina hori beste kontu bat da.

VELASCO-TARREN DORRETXEA

Tipologia: Erantsitako jauregidun dorretxea
Familia: Ayala (Ganboatarrak)
Eraikuntza-faseak: XV-1593
Udalerria: Artziniega
Oharrak: Dorretxea Berpizkundeko jauregi moduan eraberritu zuten XVI. mendean, eta jauregi barroko bat erantsi zioten geroago.

UGARTEKO DORRETXEA



Tipologia: Erantsitako jauregidun dorretxea
Familia: Ospina de Ugarte (Ganboatarrak)
Eraikuntza-faseak: XV
Udalerria: Laudio
Oharrak: Ospina de Ugartetarrek eta Orozkoko Anuncibay familiek liskar bortitzak izan zituzten Behe Erdi Aroan.

ZUDUBIARTE DORRETXEA

Tipologia: Jauregi bihurtutako dorretxea
Familia: Ezezaguna
Eraikuntza-faseak: XVI
Udalerria: Okondo
Oharrak: Egun irauten duten eraikinaren elementu arkitektoniko guztiak jauregi tipologiaren barnean sailka daitezke.

ARANGUREN DORRETXEA

Tipologia: Jauregia
Familia: Olarte (Ganboatarrak)
Eraikuntza-faseak: XVI
Udalerria: Orozko
Oharrak: Eraikina dorretxe bezala katalogatuta egon arren, ez du inoiz funtzio defentsiborik izan: dorretxe baten forma imitatzen duen Jauregia da.

POZA DORRETXEA



Tipologia: Jauregi bihurtutako dorretxea
Familia: Poza (Ganboatarrak)
Eraikuntza-faseak: XV-XX
Udalerria: Urduña
Oharrak: XX. mendearen hasieran sute batek suntsitu zuen eraikina. Ojiba-arku formako ate bi gorde dira eraikinaren barrualdean.

_kultura

MUSIKA

"Arima baldin badauka estiloa zein den ez dit axola, emozioak beti dira emozio"

Elkarrizketa hau argitaratzen denerako, EGOITZ URIARTE (Laudio, 1978) Green Valley taldearekin Mexiko eta Kolonbia aldean egongo da kontzertuak eskaintzen. Reggae talde hori ez da, baina, musikari laudioarrak duen proiektu bakarra: Bartzelonan bizitzea hainbat lan konposatzeko inspirazio iturri izan da Uriarterentzat.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Amerikatik bira egitera zoaz Green Valley taldearekin,hain urrun iritsiko zinetela uste al zenuten?

Halako proiektu batean sartzen zarenean proiektu horretan sinesten duzulako da. Fedea edo antzeko zerbait garatzen duzu proiektuarekiko. Hamar urte daramatzagu taldearekin, eta hasierako ilusioari eusten diogu.

Orain dela urte pare batetik hona badirudi jende askok entzun gaituela, Espainiatik nahiko mugitzen gara eta aretoak betetzen dira, jendeak abestiak kantatzen ditu, kamisetak erosten... "fan" fenomeno hori igartzen[1] da, eta kristoren ilusioa sortzen du.

Arrakasta horrek uzten al dizu tarterik musikari moduan dituzun bestelako proiektuak garatzeko?

Ba bai. Nire kabuz[2] ere abestiak eta diskoak egiten ditut, nire mundu pertsonalean. Diskoak argitaratzen ditut noizean behin, euren artean koherentzia moduko bat duten 10-12 kantu biltzen ditudanean. Ez ditut, baina, zuzenekora eraman, oso proiektu autobiografikoak direlako, intimoak. Artisau prozesu baten modukoa da abestiak egin eta nahastea. Nire koadroak dira, zentzu batean. Ildo[3] hori beti dut parean, eta nire bizipen pertsonalak bertan jartzen ditut.

Bartzelonara bizitzera joateak aldaketa ekarri du zure musika egiteko eran?

Green Valley-ren kasuan eman da bilakaera bat, baina letretan Anderrek (abeslariak) oso ondo jartzen ditu bere istorio eta kontu pertsonalak, eta gure (musikarien) lana horretan laguntzea da. Nire proiektu pertsonalei begira ba bai. Horrelako hiri batekin dudan harremana gorroto-amodio istorio bat da. Oso hiri handia da, mota askotako jendea ezagutzen duzu. Taberna batean lan egiten igaro ditut urte asko eta jende bitxia topatzeko aukera izan dut, denetarikoa. Bizitzarekiko, harremanekiko eta mundu zein unibertsoarekiko ikuspuntuak handitu egiten dira.

> "Green Valley bezalako talde batean sartzen zarenean proiektu horretan sinesten duzulako da"

> "Diskoak argitaratzen ditut noizean behin, euren artean koherentzia moduko bat duten 10-12 kantu biltzen ditudanean"

Urrun geratu dira Laudion musikari moduan emandako lehen pausoak?

Laudioko Lamuza parkean hasi nintzen, txistua, atabala eta folkloreari lotutako bestelako instrumentuak jotzen. Fanfarrearekin ere kutxa jotzen aritu izan nintzen. Eta 13-14 urterekin batzuk mundu horretatik desmarkatu ginen. Lehenengo gitarra elektriko eta anplifikatzaile merketxoak erostea, sasi-bateria bat muntatzea, lehen maketatxoa egitea, Laudio bezalako herri batean lehen kontzertua izan eta ostia txar eta gozamen guztiak izerditzea... Egia esan, ez dakit ondo zergatik. Batzuk kirola hautatu zuten, dantza beste batzuek... eta nire kasuan nire inguruko lagunekin musikaren munduan sartu ginen, zirraragarria[4] zelako seguru asko.

Orduz geroztik hainbat proiektutan aritu izan zara.

Bai. Baina euren artean ez dute zer ikusirik, estilo ezberdinetakoak dira. Arima baldin badauka niri estiloa zein den ez dit axola, ez naiz sektarioa. Emozioak beti dira emozio. Proiektuetan egon naizenean beti izan da "feeling"a izan dudalako pertsonekin, pertsona horietan sinistu egin dudalako, autentikoa zela iruditu zaidalako, estilo musikalaren gainetik.

Amerikatik itzultzean, zer asmo dituzu?

Aurten kristoren lana daukagu. Etorri bezain laster ekingo diogu Espainiatik bira egiteari.

Nire kabuz ere banabil abestiak osatzen. Baditut sei-zazpi abesti esku artean, eta oso gustura ari naiz geratzen nahasketekin eta abestiekin kontatu nahi dudanarekin, nire barneko egiarekin ahal den neurrian konektatuz. Auto-hazkuntza moduko bat da. Horretan nabil.

Hiztegi lagungarria

Igartzen[1], nabaritzen / Nire kabuz[2], nire kontura / Ildo[3], bide, hari / Zirraragarria[4], emoziozkoa

Hamaika proiektu

"Okerreko bidean" izan zen Egoitz Uriarteren lehen musika taldea. Orduz geroztik beste hainbat proiektutan hartu du parte, "Facunda"n kasu (argazkian). Bakarlari moduan hainbat disko ere argitaratu ditu.

Diskoa: *Grace*

"Disko hori bere garaian oso sakon sartu zitzaidan. Baina Red Hot Chili Peppers taldearen Blood Sugar Sex Magik diskoak ere burua ireki zidan 13 urterekin. Ez dakit zehazki zer disko aukeratuko nukeen. A zer nolako galdera!"

Luis
Vil
MUSIKARI ETA ZINEMAGILEA

_Kamerinoa

Graffitiak

Egunero erreparatzen diet trenbideari begira dauden hainbat pabilioi industrialen atzealdeko paretetan marraztuak dauden graffitiei. Graffiti egileek asteburua aprobetxatzen dute noizbehinka paretak berristeko. Euren artea jaio eta hil egiten da etengabe, espazio hori baino ez baitute: txoko ezkutu eta ahaztu bat, pertsona ororen bistara dagoena. Artea bere zentsurik puruenean: produktu moduan baino, artistaren beharragatik sortua. Azkenaldian benetako arte lanak egiten dituzte, hiru dimentsiotako erliebeak simulatuz.

Gure hirien estetika datorkit burura, griserantz eta tonu neutroetarantz jotzeko joera duten pareta monokromatikoekin. Badirudi inork ez duela horrekin guztiarekin bukatu nahi. Estetika neutroak bere habitatean zentratua mantentzen du norbanakoa, hiritar pasibo moduan jokatzetik harago doan inolako estimulurik gabe. Nire buruari galdetzen diot ea zer gertatuko litzatekeen hiriak inbaditzeko baimena emango balitzaieke euren artea hiriaren kanpoaldeko pareta zaharretan egitera kondenatuak dauden graffiti egile horiei guztiei. Izan ere, graffiti onenari sinadura nork jarriko lehiatzen dabilen komunitatea da graffiti egileena. Konpetentzia hori izango litzateke motorra bakoitzak bere onena jartzeko bahitzen duen pareta horretan.

Gustuko dugu artea, gustuko dugu margolaritza, museoetan sartzeko ordaindu egiten dugu, artea eraikitzeko ere. Paradoxikoa dena da isunetara eta ahanzturara kondenatzen dugula benetan doan egiten duen hori, gure hiriei "kolorea" ematen dioten "teknikariek" baino freskotasun eta talentu gehiago izan arren.

_kultura

ARGAZKILARITZA:

Amurrioko XXXVI. Argazki Lehiaketaren irabazleak hautatu dituzte

Amurrioko Argazki Lehiaketaren 36. edizioak baditu irabazleak. Orotara 83 argazki-bilduma aurkeztu dira gai librearen kategorian eta 17 Amurriori buruzkoan. Lehen kategorian Diego Pedra Benzal eta Urbano Suarez Fernandez atera dira garaile, eta Jesus Maria Rodriguez eta Jose Miguel Llano bigarrenean.

MUSIKA:

Fita Fik euskal soinu-tresna eskolako matrikulazioa zabalik, ekainaren 12ra arte

Fita Fik euskal soinu-tresna eskolak ireki du matrikulazio epea, ekainaren 12ra arte. Urduñan, FPko bedelaren etxea izan zen tokian eman daiteke izena, ostegunetan, 16:00etatik 20:00etara. Laudion, udaletxe zaharrera joan behar da, astelehen, astearte eta ostiraletan, 16:00etatik 20:00etara.

Green Dayk Laudion eman zituen kontzertuei buruzko dokumentala proiektatuko dute

ERREDAKZIOA I

Green Day taldeak Laudion eman zituen kontzertuak ardatz[1] dituen dokumentala proiektatuko da ekainaren 12an Laudioko Lanbide Heziketa Udal Ikastetxean, 19:30ean. *Yo lo viví: Green Day* da film laburraren izenburua.

Mundu osoan famatua egin den punk-rock talde estatubatuar horrek bi aldiz jo zuen Laudion, 1991 eta 1994 urteetan, ezagun bilakatuko zuen *Dookie* diskoa argitaratu baino lehen. Taldekideek 18-19 urte zituzten garai hartan.

Dokumentala EHUko ikasle batzuek iaz[2] eginiko proiektua da. 20 minutuko iraupena dauka eta kontzertuan antolatzaile zein ikusle gisa[3] aritu izan ziren hainbat aiaraldear agertzen dira: Juan *Pelukas*, Kepa Gonzalez, Itziar Etxebarria, Ernesto Navarro *El Pari*, Kepa Sojo eta Juancar *Lato*.

1991ko kontzertuaren kartela.

"Furtum X" film laburra

Dokumental hori ez da izango, baina, ekainaren 5ean proiektatuko den film bakarra. *Furtum X* film laburra ere ikusteko aukera egongo da. Laudion aurten grabatutako pelikula da, sei minutuko iraupenekoa. Umorezko filma da eta ondorengo pertsonek parte hartu dute grabaketan: Bego Guerrerok, Ernesto Fernandezek, Roberto Dominguezek eta Eider Elorzak. Zuzendaritza lanetan, berriz, Alberto Villar aritu da.

+info: MUSIKA
Green Dayren zuzenekoa Laudion

Hiztegi lagungarria

Ardatz[1], oinarri, hizpide / laz[2], aurreko urtean / Gisa[3], moduan /

LAUDIOKO LAMUZA PARKEAREN ALDEKO KOREOGRAFIA ERAKUSTALDIA

"Parkearen alde mugitzen"

Nahia Gonzalez Garcia

Urduritasunek, ilusioek, gainezka egin duten indarrek hartu zuten maiatzaren 31ko igandean Aldai Plaza. Hamasei izan ziren euren lanak aurkeztu zituzten taldeak, horietako bat lehiaketatik kanpo, Laudioko Koreografia Erakustaldiaren lehen edizioan.

Txalo, barre eta negarren baten artean Txitxarritak, ospakizunetako irakasle-pailazoak, parte hartzaileei eta ilusioaren konplize ziren ikusleei zuzentzen zitzaien. Lagun, senide eta auzokideek bete zuten karpa, laguntasun eta umore onez betetako giro batean.

Epaimahaiaren lana ez zen erraza izan. Horregatik, Txanik, Markelek, Koldok, Pekek eta Haizeak irabazlea hautatzen zuten bitartean, flamenko irakaslea den Luziak bere arte eta indarraz gozarazi zigun, diskodantzaren kamioiaren gainean.

Eta iritsi zen unea, erabakia. Talde irabazlea: Unknows, hiru neskek osatzen zuten: Ane Mirenek, Cheyennek eta Rakelek. Izugarrizko indarra zeukaten hiru "hiphopera". Erritmoz betetako dantza bat egin zuten, talde-koordinazio handiarekin eta mugimendu garbi eta zuzenak baliatuz. Makillajeak euren aurpegien espresioa areagotu egiten zuen, indarrez betetako keinuekin.

Gozamena.

SOS Laudioko Lamuza Parkea plataformatik erakustaldira aurkeztu diren pertsona guztiei eman nahi dizkiegu eskerrak, lan guztietan jarri dituzten indar eta gogoengatik. Badakigu adin ezberdintasuna nabaria izan dela, baina egiten goazen heinean ikasten dugu. Ezer ez egitea da ezereza.

Bigarren edizioan kategoriak konpentsatuagoak egotea espero dugu. Denon artean pentsatuko dugu horretan, berdintasun gehiago lortzeari begira.

Dozenaka herritar bertaratu ziren erakustaldira / aiaraldea.eus

Zorionak Rakel, Cheyenne eta Ane Mireni merezita jaso duten sariagatik (Berlinera bidaia, hotel egonaldiarekin eta ikuskizun bat ikusteko sarrera batekin).

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu gogorarazteko irailaren 12an zita bat dugula guk guztiok: "Atera zure artea parkera". Egun hori erreserbatzera eta edozein ekintza kultural prestatzera animatu nahi zaituztegu.

Izan ditugun kolaborazio guztiek egin dute posible erakustaldia.

Eskerrik asko.

+info: BIDEOA
Koreografia erakustaldia

Javi Aspuru

IRAKASLEA

_Lurpetik

Trena

Gaur egun eztabaidagarri eta gatazkatsua den Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza, ez da orain dela 150 urte gertatutakoarekiko gauza oso ezberdina. Gaur egun, ingurumena eta kostu ekonomikoak dira eztabaida, garai hartako tirabirak Bilboko loturarekin zuten zerikusia. 1845. urtean sortu ziren lehenengo proiektuak. Madrid-Gasteiz-Bilbo-Irun izan zen aurreikusitako lehendabiziko ibilbidea. 1855. urtean Esparterok sortutako legean Bilbo baztertua geratu zen, loturarik gabe. Gauzak hala, Bizkaiko instituzio nagusiek, Diputazioak eta Merkataritzako Juntak, Bilbo-Tutera ibilbidea sortu zuten Madrid-Irun ibilbidearekin lotzeko.

Gaur egun, Bilboko agintariek euren proiektu nagusiak bideratzeko, munduko arkitekto famatuenak kontratatzen dituzte: Frank Gehry, Norman Foster edo Zaha Hadid, adibidez. Ohitura hori ez da berria, aspalditik dator. Bilbo-Tutera trenbidea eraikitzeko garai hartako munduko ingeniari ospetsuena (Charles Blacker Vignoles) kontratatu zuten. Ukrainan Dnieper ibai gaineko trenbideko zubia (Europako handiena) egin zuen hark.

Bilbo –Tutera proiektua puntakoa zen. Hori dela eta, 1866 urtean munduko astekari famatuenean (The Illustrated London News) litografiazko bi grabatu agertu ziren, Subijanako arroilarena bata eta Bilboko erdigunearena bestea, inaugurazioko berriarekin batera. Proiektu horretan Bilboko ordezkari eta koordinatzaile nagusia Juan Rubenach injineru alemaniarra, izan zen, eta Amurrioko Adelaida Lezama Urkijo andrearekin ezkondu zen. Amurriora bizitzera etorri zen gero. Trenbidearekin batera atzerritar asko etorri ziren lanera gure herrietara.

_kirola

Emaitza gorabeheratsuak ligan

ERREDAKZIOA I **Irati Moreno Fernandez**

Hockeyan, futbolean eta saskibaloian Liga jada bukatu da eta kirolaren arabera emaitza oso ezberdinak lortu dituzte eskualdeko kirolariek. Aiaraldeko Hockey taldeek zalantzarik gabe emaitza onenak lortu dituzte. Izan ere, bai belar hockeyan, zein areto hockeyan, podiuma egitea lortu dute talde guztiek. Futbolean, ordea, nahiz eta lehenengo postuak azken postuak baino ugariago izan diren, eskualdeko bi taldeek mailaz jaitsiko dira, Amurrio Klubeko III.mailako talde eta ohorezko jubenilak. Guztira zazpi taldeek lortu dituzte Ligako lehen postuak. Saskibaloian ez da aldaketa handirik egon. Talde gehienak Ligako maila berdinean jokatuko dute datorren denboraldian ere.

FUTBOLA

AMURRIO

AMURRIO CLUB

III. mailako taldea (gizonezkoak): Azkenak
Ohorezko jubenilak (gizonezkoak): Azkenak

KASKAGORRI

Lehen jubenilak (gizonezkoak): 7. postua//2. fasean
Bigarren kadeteak (gizonezkoak): 6.postua/2.fasean
Kaskagorri A (gizonezkoak): 10. postua
Kaskagorri B (gizonezkoak): 1go postua

ETORKIZUNA (KASKAGORRI)

Etorkizuna A (gizonezkoak): 10. postua
Etorkizuna B (gizonezkoak): 2. postua
Etorkizuna C (mistoa): 3.postua

OROZKO

ATXULAUR

II. Erregionala (gizonezkoak): Azkenak
Jubenilak (gizonezkoak): 9. postua
Kadeteak (gizonezkoak): 1go postua
Infantilak (gizonezkoak): 1go postua
Kimuak 03 (gizonezkoak): 5. postua
Benjaminak 05 (gizonezkoak): 5. postua
Benjaminak 06 (gizonezkoak): 6. postua

URDUNA

CD ORDUÑA

II. Erregionala (gizonezkoak): 10. postua
Seniorrak (emakumezkoak): 3. postua
Kadeteak (gizonezkoak): 5. postua
Infantilak (gizonezkoak): 4. postua //2.fasean
Kimuak (gizonezkoak): 9. postua
Benjaminak A (gizonezkoak): 3. postua
Benjaminak B (gizonezkoak): 8. postua
Kadete jubenilak (emakumezkoak): 4.postua//2.fasean

LAUDIO

CD LAUDIO

Erregional preferentea (gizonezkoak): 7. postua
Ohorezko jubenilak (gizonezkoak): 2. postua
Jubenil B (gizonezkoak): 7. postua
Kadeteak (gizonezkoak): 5. postua
Erregionala (emakumezkoak):Kopa Erregionalean
Infantilak A (gizonezkoak): 6. postua
Infantilak B (gizonezkoak): 2. postua
Infantilak C (gizonezkoak): 7. postua
Kadeteak B taldea (emakumezkoak): 2. postua
Infantil / kimuak C taldea (emakumezkoak): 7. postua
Kimuak A (gizonezkoak): 1go postua
Kimuak B (gizonezkoak): 11. postua
Kimuak C (gizonezkoak): 7. postua
Kimuak D (gizonezkoak): 1go postua
Kimuak E (gizonezkoak): 6. postua
Laudio eskola A (gizonezkoak): 12. postua
Laudio eskola (gizonezkoak): 2 .postua

ARRANKUDIAGA

INDARRA

III. erregionala (gizonezkoak): 11. postua
Infantilak (gizonezkoak): 3. postua //2.fasean
Infantilak (emakumezkoak):5.postua//2. fasean
Kimuak (gizonezkoak): 4. postua

IBERLANDA

III. erregionala (gizonezkoak): 1go postua
Kadete-jubenilak (gizonezkoak): 1go postua

SASKIBALOIA

AMURRIO

ZARAOBE CLUB

II. Senior (gizonezkoak): 12. postua
II. Senior (emakumezkoak): 2.postua
Kadete (gizonezkoak): 2. postua
Infantil (gizonezkoak): 2. fasean
Infantil (emakumezkoak): 2. fasean
Kimuak 2 (gizonezkoak): 7. postua
Kimuak 1 (emakumezkoak): 1go postua
Benjaminak: Lau talde: 2 fasean

URDUNA

A.D. BEDARBIDE

Senior (gizonezkoak): 8. postua
Junior (gizonezkoak): 4. postua
Junior (emakumezkoak): 8. postua
Kadete (emakumezkoak): 3. postua
Infantil (gizonezkoak): 4. postua
Minibasket (emakumezkoak): 2. postua
Preminibasket (talde mistoa): 7. postua

LAUDIO

SUGARRAK

Senior 2.maila (gizonezkoak): 8. postua
Senior 3. maila (gizonezkoak): 3. postua
Kadeteak (gizonezkoak): Azkenak

HOCKEYA

ARETO HOCKEY Arabako Txapelketan

GANBEG 6-21

Lehen maila (gizonezkoak): 1go postua

HOCKEY LAUDIO K.E

Lehen maila (gizonezkoak): 2.postua

LUIAONDO HT

Kimuak- benjaminak (Talde mistoa): 2.postua

LAUDIO IKASTOLA HT

Kimuak- benjaminak (Talde mistoa): 3. postua

LA MILAGROSA HT

Kimuak- benjaminak (Talde mistoa): 1.postua

RAPID APILL HT

Kadeteak (Talde mistoa): 2.postua

SATORRAK

Kadeteak (Talde mistoa): 2.postua

BELAR HOCKEY Arabako Ligan

LAUDIO IKASTOLA HT

Kimuak- benjaminak (Talde mistoa): 2 postua

LA MILAGROSA HT

Kimuak- benjaminak (Talde mistoa): 1.postua

LUIAONDO HT

Kimuak- benjaminak (Talde mistoa): 3.postua

FUTBOLA

Gentza Zabala omenduko dute ekainaren 13an

ERREDAKZIOA I Irati Moreno

Ekainaren 13a izango da Gentza Zabala Udaeta omentzeko eguna. Hori dela eta, aurten nesken arteko partida jokatuko da. Nerbio Goiena-ko selekzioa eta Gasteizko 2. dibisioko Aurrera taldea izango dira partida jokatuko dutenak. Hitzordua 18:00etan izango da Ellakuriko futbol zelaian.

Partidua Teixeira Vitienesek arbitratuko du; lehen mailako arbitro batzordeko kidea da. Haitzulo Barri tabernak bere ekarpena ere egin du, baloia emango baitu.

Gentza Zabala Udaeta laudioarra 2012ko irailaren 29an zendu zen, 24 urte zituela. Zeanurin auto istripu bat izan zuen. Erregional Preferenteko epailea zen eta Zaramagara partidu bat zuzentzera zihoala gertatu zen istripua. C.D. Laudioko kategoria guztietan aritu zen atezain.

FUTBOLA

Hastear da Umeen Orozkoko Futbol Txapelketa

ERREDAKZIOA I

Orozkoko Umeen IV. Futbol Txapelketa ekainaren 6an eta 7an jokatuko da.

Zortzi taldek osatuko dute txapelketa: Atxulaur, Cultural, Santutxu, Itugarpe, Trapagaran, Gernika, Baskonia eta Amorebieta.

Partidak larunbatean hasiko dira, goizeko bederatzietan. Bazkaltzeko etenaldia egingo da eta 20:00ak aldera bukatu. Igandean ordu berean hasiko dira baina eguerdiko 14:00etarako jada sari banaketa izango da.

Jokalariek, familiek eta lagunek herriko jatetxeetan jateko aukera izango dute.

_kirola

ATLETISMOA:

Laudioko Atletismo Klubaren emaitza onak

Kluba oso pozik dago Euskadiko txapelketan estalperik gabeko pistan lortutako emaitzekin. Guztira, zortzi gazte aritu ziren txapelketan eta horietako bik podiumera igotzea lortu zuten. Batetik, Abigail Hortiguelak 100 metro lauetan 3.postua lortu zuen. Bestalde, Ander Altuzarrak 2. postua lortu zuen jauzi hirukoitzean.

GIMNASIA ERRITMIKOA:

Aresketakoek emaitza onak lortu dituzte Euskadiko eskolartekoan

Emaitza onak lortu dituzte Aresketa klubeko kideek Euskadiko Eskolarteko Txapelketan. Kimuak A kategorian Iraitz Canterok 3. postua lortu zuen, Enara Ladislaok 5.a eta Aresketako kimuak A taldeak orokorrean 6 . postua. Euskadiko Amateur Txapelketan, berriz, Oihane Elexpek 7. postua lortu zuen, sokarekin.

HOCKEY:

Ekainaren 6an ospatuko dute IV. Hockey Eguna Gardean

IV. Hockey Eguna ospatuko dute Gardean ekainaren 6an. Aiaraldeko hockeyzaleen laguneen, kluben eta Laudioko eta Aiarako udalen laguntzarekin antolatu dute eguna. Hainbat maila eta adineta-ko hockey partiduez gain, familia osoarentzako ekintza berriak txertatu dituzte. Izena emateko epea ekainaren 1ean amaituko da.

"Euskadiko Txapelketa irabaztea egindako lanaren saria izan da"

AITOR ARCAS Eraso Aiara jubenilen taldeko entrenatzailea da. Aurten Euskadiko txapeldunak izan dira eta Arabako Kopako finalean jokatzeko aukera izan dezakete.

Garaipenaz gozatzen. Goian eskumako aldean dago Aitor Arcas. / Eraso Aiara

ERREDAKZIOA I Irati Moreno

Euskadiko txapeldunak zarete aurten areto futbolean. Zer suposatzen du horrek zuentzat?

Denboraldi osoan zehar egindako lanaren saria, taldearentzat Euskadiko txapeldun izatea inoiz ez delako helburu izan. Baina aukera ikusi genuen momentutik aurrera, bai jokalariek, klubak zein nik neuk egindako lana ikaragarria izan da.

Zer nolako denboraldia izan da aurtengoa?

Denboraldi paregabea izan da. Arabako Ligan 20 partida jokatu eta horietatik 18 irabazi ditugu, bat berdinduz eta bakarra galduz, bi jardunaldiren faltan txapelketa ziurtatuz.

Gainera, aurreko asteburuan Euskal Kopa irabazi dugu eta hori gutxi balitz asteburu honetan, Gasteizen, Arabako Kopako finalerdia jokatuko dugu (eta irabaziz gero finalean egongo gara).

Zer nabarmenduko zenuke?

Denboraldiari dagokionez, jokalariek, hainbat partidatan zehar, emaitza txar baten aurrean erakutsi duten adorea[1] eta irabazteko nahia. Taldeari begira, berriz, jokalarien arteko harremana ere ezin hobea izan da.

Eta aurreko urteko denboraldiarekin konparatuz, hobera edo txarrera egin duzue?

Dudarik gabe hobera egin dugu, liga lehen aldiz irabazi dugu aurten baina horrez gain hiruzpalau jokalarik lehen taldearekin jokatu ahal izateko maila lortu dute.

Zenbat entrenatzen duzue?

Astean bitan entrenatzen dugu; ordubete eta erdiko entrenamenduak dira normalean, nahiz eta saioak laburtu edo zuzenean bertan behera uzten ditugun lesioak, gaixo dauden edo azterketatan buru belarri sartuta dauden jokalariak ugariak badira.

Zer nolako entrenamenduak egiten dituzue?

Urtero Egoitzek (lehen taldeko entrenatzailea) eta biok bi taldeetarako aurredenboraldia prestatzen dugu Egoitzek berak prestatutako metodologia baten bitartez. Horrela, lehen taldeko jokalariek zein taldejubenilekoek kontzeptu berberak lantzen dituzte, nahiz eta maila ezberdinean garatu.

Denboraldiak aurrera egin ahala, bakoitzak bere taldearen beharren arabera egiten du lan. Baina bi taldeetan jokalariek ondo pasatzea da helburu nagusia eta, kontzeptu tekniko zein taktikoak lantzeaz gain, jokoak, partidatxoak eta horrelakoak ere egiten ditugu.

Zer nolako harremana duzue taldekideen artean?

Lehen komentatu dudan bezala jokalarien arteko harremana paregabea da, baita eurek nirekin daukatena ere. Dudarik gabe jokalari guztien arteko adin desberdintasun txikiak asko laguntzen du hau horretan.

Orain dela zenbat urte hasi zinen zu areto futbolera jokatzen?

Egia esan ni ez naiz inoiz areto futbolean aritu jokalari moduan. Duela 6 urte nire lagun batzuek sortu zuten Eraso Aiara; orduan ni ez nuen taldearekin inongo loturarik. Hiru urte eman nituen harmailetan[2] haien partida gehienak ikusten; urte haietan hiru igoera lortu zituzten jarraian eta Euskal Ligara iritsi ziren. Momentu horretan Egoitzek, areto futbola oso gustuko nuela ikusita eta taldearen beharrak zirela eta, laguntza eskatu zidan eta urtebetez bere laguntzaile moduan aritu nintzen. Orduan konturatu nintzen benetan gustuko nuela entrenatzea eta pasa den denboraldia hasi zenetik jubenil mailako taldea nire gain hartu nuen.

Zergatik areto futbola eta ez futbola?

Nire kasuan behintzat argi daukat, kirol honetan ez dago partida aspergarririk, uneoro baitaude gol aukerak. Gainera, 11 jokalari izan beharrean 5 bakarrik direnez defentsa arloan ezin daiteke inor ezkutatu eta erasoan guztion partaidetza beharrezkoa da, baita atezainarena ere kasu batzuetan.

Hiztegi lagungarria

Adorea[1], kuraia / Harmailetan[2], ikusleentzako eserlekuetan

Aiara Futbol Campusaren III. edizioa antolatu dute

Hiru asteetan zehar futbolera jokatzeko zein hainbat tailer egiteko aukera egongo da campusean. Lekuak mugatuak izango dira eta ekainaren 12an izango da izena emateko azken eguna.

Lehenengo astea ekainaren 24tik 27ra arte izango da, bigarrena ekainaren 29tik uztailaren 3ra arte eta azken astea, berriz, 6tik 10era. Prezioak desberdinak izango dira. Izan ere, egun solteetan eta ekintza ezberdinetan izena emateko aukera baitago.

Batetik, futbol saioak egongo dira eta hiru egun joan ahal izateko 45€ ordaindu beharko dira, aste bat 90€, bi aste 160€ eta egunero joateko 180€. Bestetik kirol tailerrak egongo dira. Horretarako 30€, 60€, 100€ edo 110€ ordaindu beharko dira.

Zaraobe Saskibaloi Klubak 30. urteurrena ospatzeko ekimen ugari antolatu ditu

ERREDAKZIOA I Irati Moreno

Ekainaren 6an ospatuko dute Zaraobe Saskibaloi Klubaren urteurrena. Hainbat ekintza antolatu dituzte egun horretarako herriko hainbat tokitan. Saskibaloiaren inguruko egun berezia antolatzea da ospakizunaren helburua.

Egunari hasiera emateko 10:00etan 3x3 beteranoen txapelketa egongo da Juan Urrutia plazan. Jokoaren helburua denek jokatzea da. Gainera, antolatzaileek jokalariei saskibaloi mozorroak eraman ditzaten hots egin[1], diete.

Ordu berean gazteentzat ginkana ere antolatu dute Guk gunetik abiatuta. 12:30ean, aldiz, poteoaren ordua izango da eta jarraian herri bazkaria egongo da Matias Landaburun.

Arratsaldeko 19:00ak arte dantzatzeko musika, txosna eta puzgarriak egongo dira. Ondoren, 22:00ak arte, rally berezi bat antolatu dute. Poteoa egin eta pintxoak dastatuko dituzte herritik zehar abilezia jokoetara jolasten duten bitartean.

Udako kanpusa

Udako Campusa ere antolatu dute klubeko arduradunek. Bi txanda egongo dira. Lehenengoa ekainaren 29tik uztailaren 3a arte izango da. Bigarrena, aldiz, uztailaren 6tik 10era. Aste baterako 60 euro ordaindu beharko dira eta bi asteetan zehar campusean parte hartzeko 110. Ordutegia goizeko 9:30etik 13:30ra izango da eta izena emateko epea ekainaren 26a arte egongo da zabalik. 1997tik 2007ra arte jaiotako haurrek parte hartu ahal izango dute.

Hiztegi lagungarria

Hots egin[1], esan / laz[2], aurreko urtean / Gisa[3], moduan /

Iazko Udako Campuseko irudi bat. Argazkia: Zaraobe Saskibaloi Kluba

_Herriko plaza

_agurrak

Sugoi

Geure trasto txikiak urte bat bete du! Zorionak Sugoi, laztana! Izugarri maite zaitugu hirurok!!!

Aita,ama eta Lierni

Goio

Zorionak aita! Gurekin jolasteko beti prest zaudelako, muxu erraldoia zuretzako! Maite zaitugu!

Etxekoak

Mikel

Mikel, ekainaren 25an egingo dituzu 6 urte. Zorionak maitea!!! Maite zaitugu.

Ane, aita eta ama

Markel

20 beeeelarri tirakada artaldeko matematikariari! Eskumiñak etxean! Muak!

Artaldea

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera ekainaren 12a baino lehen.

_denborapasak



EZKER-ESKUIN

1. Zizel, harria lantzeko tresna. 2. Gure herrialdeko. Hizki grekoa. 3. Miresmena. Sutarako zur. 4. Zintzo. Ok eginez. 5. Nornahi. Potasioaren ikurra. 6. ... izan, bat etorri. Bihi, garau. 7. Pertsona batengandik espero den jokamolde. Akain mota. 8. Tona, labur-labur adierazita. Petatxu. 9. Erretreta.

GOITIK-BEHERA

1. Arrain mota. Zuhaitz mota. 2. Urinetan egosiriko haragiki. 3. Bizkaieraz, sobera. Ameriketako Estatu Batuetako diru. 4. Ontziaren ezkerraldea popatik brankara begiratuz. Hizki baten izena. 5. Errepikatuz, gorotza. ... hartu, onartu. 6. Gela handi. Igarobide. 7. Bokal mehea. Labore mota. 8. Karta joko. Bizkaieraz, bezalako. 9. Erokeria.

ERRAZA

			5	8			4	
		7	3					9
		4		6		8	3	
			7		3		2	
3			2			7	5	
	5					3	9	4
2	7				8		6	3
	6		4	7	5		8	
4								5

ZAILA

	4	5			6	7		2
6	3	2				8		
			5					3
			4	5			7	
			6					
5	2		7				4	
9			8					
8		4						7
2	7	3	9	4				6

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18

Zure etorkizunarekin gertatuko dena ez dakizula zoratzen ari zara. Egin zenezakeen guztia egin duzu, gertatzen dena gertatzen dela ez dago zure eskuetan. Beraz, zure burua ekintza ezberdinekin entretenitu eta ez eman etxean ordu asko bakarrik, atera!

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20

Oso erosoa da besteei entzun nahi dutena esatea, horrela ez baituzu etsairik izango. Lagun ona lagun horri egokiena zer den esateko ahalmena duena da. Zaila izan daiteke askotan baina entzun nahi ez duena esatean harremana estutzen ari zara, proba egin ezazu!

HERENSUGE
03.21-04.20

Lan eta lan zabiltza azkenaldi honetan. Hilabeteak aurrera doaz eta zuk oraindik oporrak eskatu barik zaude! Burua lanean murgildu duzu baina maite dituzunekin denbora pasatzera derrigortu behar duzu burua. Atsedena osasuna da, zurea eta ingurukoena.

LAMIA
04.21 - 05.20

Zure gauzak beti eginda egon behar dira, norbaitek zu nahi duzuna egiten ez duenean haserretzen zara, baina zugandik besteek zer edo zer behar dutenean ez zaude emateko prest. Nola exijitu besteei ezer zuk zure buruan pentsatzen baduzu beti?

BASAJAUN
05.21 - 06.20

Liluratuta zaitu pertsona berri horrek. Liluratuta egotea polita da, baina ez da maitasunaren baliokide zehatza, pixkanaka hazten doan sentimendua baita maitasuna. Kontuz ibili liluraren efektuarekin, orain oso polita dena gero damutu egin zaitzake eta.

BASANDERE
06.21 - 07.20

Zaintzailea izatea ondo dago, baina beti lan guztia egiten duzu zuk. Zergatik ez laguntza eskatu? Zereginak... dena zuk bakarrik egiten duzu, ez diezu zure buruhauste horiei denborarik eskaintzen. Zugan pentsatu ezazu, zure burua zuk bakarrik salbatu dezakezu eta!

GAUEKOAK
07.21 - 08.21

Noten truke sariak exijitzen diezu gurasoei, zuretzat saria baita lan egiteko arrazoi nagusia. Gurasoen lana zu zaintzea den moduan zurea zure betekizunak betetzea da, ez ahaztu!

JENTILAK
08.22 - 09.22

Bidaiak, egun pasak, jaiak... gauza asko dituzu buruan baina egoera horien aurrean atzera egiten duzu. Ondo da egin nahi duzuna argi izatea, ez duzu ahaztu behar ez duzuna orain egiten bihar agian ezingo duzula egin.

AKERBELTZ
09.23 - 10.22

Zure bizitokia baloratzen ikasi behar duzu. Etxetik joan nahi duzula, jeinu txarrarekin zabiltza beti. Zure burua aurrera ateratzeko lan egin behar duzu, zer egingo duzu etxetik bazoaz harrikoa ere ez badakizu egiten?

MARI
10.23 - 11.22

Eztula, mukiak... ez zara sendatzen! Ez al duzu pentsatu eguzki izpien xarmak itsutu zaituela? Eguraldia apur bat hobetu eta jarraian udako arropa armairutik ateratzen duzu. Ez ahaztu uda oraindik ez dela heldu!

ZIRIPOT
11.23 - 12.20

Albisteak ikusteko gaztelerazko webguneetan sartzen zara beti. Euskaraz badakizu aizu! Gogoratu euskara dela jaso dezakegun albisterik onena!

SUGAAR
12.20 - 01.19

Bizitzak erakutsi dizu ezin fida zaitezkeela, horregatik lagunen bat erratzen denean berehala ateratzen duzu zure bizitzatik. Gizakiak gara, hanka sartzen dugu askotan!

_irakurlearen txokoa

_agenda

06.04 OSTEGUNA

12:00 LAUDIO
ELKARRETARATZEA
Pentsiodunak berrordainketaren aurka
Anbulatorioa

17:00 AMURRIO
TAILERRA
Akuarela ikastaroa doan Miguel Torrusen eskutik
Kultur Etxea

19:00 LAUDIO
BILERA
EH Bildu: udalgintza 2015-2019
Erabilera anitzeko aretoa

06.05 OSTIRALA

10:00 LAUDIO
TAILERRA
Doako akuarela ikastaroa Miguel Torrusen eskutik
Kultur Etxea

18:00 URDUÑA
MAGIA IKUSKIZUNA
Euskara Plazara: Eriz Magoa
Foru Plaza

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Musika eskolako ikasleen klarinete emanaldia
LHUI

19:00 OROZKO
GURE ESKU DAGO
Bideo emanaldia
Donibane Aretoa

19:00 AMURRIO
DANTZA IKUSKIZUNA
Jose Antonio Uruñuela kontserbatorioaren eskutik
Donibane Aretoa

20:00 OROZKO
GURE ESKU DAGO
Oihalak josi, material berriaren salmenta...
Herriko Plaza

21:00 LAUDIO
KONTZERTUA
The Bilbobillies
Drumgorri Aretoa

06.06 LARUNBATA

09:00 LAUDIO
KIROL TOPAKETA
Hockey Eguna: partidak, herri bazkaria...
Gardeako Hockey Zelaia

10:00 AMURRIO
BIODIBERTSITATE JARDUNALDIAK
Delikako burruntziak ikusteko txangoa

GAZTE ALAI TOPAKETAK

06.06 LARUNBATA
AMURRIO

11:30 Kilkir musika taldearen eskutik kalejira eta poteoa.
12:30 Plazatik igoera Aresketa Ikastolara.
13:00 Meza
13:30 Mugendo erakustaldia
14:30 Bazkaria
16:30 Bazkalondoko musika jaialdia
18:30 Odoloste jana
19:30 Jaiaren amaiera eta agurra

06.07 IGANDEA

11:00 LAUDIO
II. JOSTE EGUNA
Oihalak josi, trikitixa, sarreren salmenta...
Herriko Plaza

12:00 AMURRIO
XXXVIII. ARABAKO DANTZARI EGUNA
Erakustaldia, kalejira, erromeria...
Herriko plazak

06.08 ASTELEHENA

11:00 LAUDIO
ATE IREKIAK
Tailerrak ezagutzeko aukera
Kultur Etxea

17:30 URDUÑA
HITZALDIA
Maitasun erromantikoaren inguruan
Kultur Etxea

06.10 ASTEAZKENA

20:00 AMURRIO
KONTZERTUA
Bilbaomusikako eta Hasperen abesbatzak
Amurrio Antzokia

06.11 OSTEGUNA

21:00 LAUDIO
KONTZERTUA
The Movement
Drumgorri Aretoa (10€)

06.12 OSTIRALA

18:00 URDUÑA
UMEENTZAKO IKUSKIZUNA
Danzjolas jaia
Foru Plaza

19:00 LAUDIO
DISPERTSIORAKO BIDAIA
Sakabanaketaren aurkako ekimena
Lamuza Plaza

19:00 LAUDIO
HERRIEN JAIALDI KULTURALA
Txosnen irekiera eta musika ekitaldiak
Herriko Plaza

19:00 LAUDIO
ZINEMA
Green Dayk Laudion emandako kontzertuaren inguruko dokumentala eta Furtum X film laudioarra
LHUI

21:30 ARRANKUDIAGA
KONTZERTUA
Atzekabe
Gizarte Etxea

06.13 LARUNBATA

10:00 AMURRIO
BIODIBERTSITATE JARDUNALDIAK
Nerbioiko Parke Linealean txangoa

10:00 LAUDIO
FUTBITO
8 orduz futbitoa
Lamuza Ikastetxea

10:00 LAUDIO
BASERRITAR AZOKA
Herriko Plaza

17:00 AMURRIO
TALDE AURKEZPENA
Nerbioi Rugby taldea
Refor

18:00 LAUDIO
GENTZA ZABALAREN OMENALDIA
Futbol partida
Ellakuri futbol zelaia

HERRIEN JAIALDI KULTURALA

06.13 LARUNBATA
LAUDIO

11:00 Txosnen irekiera
13:00 Kepa Sojoren pregoia
13:30 Euskal Dantzak
14:00 Agintari eta gonbidatuentzako dastatzea
18:00 Txitxarrita Kutxufleta
19:00 Bertsolariak
22:00 Erromeria, Los Amigos del Swing

21:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Lyrikan Style & DJ Funi
Drumgorri Aretoa

06.14 IGANDEA

08:00 ARTZINIEGA
MENDI IBILALDIA
Palomares mendira, Ganzorrotz taldearekin
Frontoia

10:00 LAUDIO
ARABA EUSKARAZ
Autobusa, 19:00etan itzuliko da Gasteiztik
Laudio Institutua

10:00 ARTZINIEGA
ABESBATZA IKASTAROA
Ikastaroa, saioa, bazkaria eta kontzertua
Arteko Gure Ama Ikastetxea

11:00 LAUDIO
HERRIEN JAIALDI KULTURALA
Txosnen irekiera eta musika emanaldia
Herriko Plaza

06.20 LARUNBATA

11:00 ZUHATZA
AIARAKO UMEEN JAIA
Puzgarriak, tailerrak, ikasle nagusiei agurra...
Etxaurren Ikastola

06.21 IGANDEA

09:00 AMURRIO
LASTERKETA
IV. Trail Lasterketa, Gorobeletik igaroko da
Juan Urrutia plaza

10:00 URDUÑA
SAN JOAN AZOKA
Tokiko ekoizleak
Kale nagusia

11:30 MURGA
SAN JOAN
Produktuen erakusketa, euskal dantzak, magia...
Herrigunea

_ezin galdu

OROZKOKO GURE ESKU DAGO EKIMENAREN BIDEO EMANALDIA: Aurreko Joste Egunean grabatutako irudiekin, besteak beste, bideoa osatu dute Gure Esku Dago ekimeneko kideek Orozkon. Ostiralean estreinatuko dute Donibane Aretoan arratsaldeko 19:00etan.

ARABA EUSKARAZ 2015: Aurtengo Araba Euskaraz jaia Gasteizen izango da ekainaren 14an eta Laudioko udalak autobusa antolatu du hiriburura hurbiltzeko. 6 euro balioko du, goizeko 10:00etan aterako da eta 19:00etan Gasteiztik itzuliko da. Besteak beste ETS taldeak joko du.

etxaurre
higiezinen agentzia

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: kontsultatzeke
100 m², 3 gela, 2 bainugela, 26 m²-ko egongela eta sukaldea kanpoaldera, 300 m²-ko lorategia, 2 trasteleku, 2 garaje, terraza.
Erref.: 167.321

PISUA SALGAI ARETAN
Prezioa: Kontsultatzeke
80 m², 3 gela (printzipala bainugelarekin), 2 bainugela, sukaldea balkoiarekin , egongela, igogailua, garajea, trastelekua, oso negoziagarria.
Erref.: 167.572

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 134.000 €
90 m², 3 gela, 2 bainugela, sukaldea balkoiesekitokiarekin , egongela jantokiarekin, trastelekua, garajea, igogailua, babes ofizialeko etxebizitza.
Erref.: 167.567

PISUA SALGAI ARETAN
Prezioa: 95.000 €
56 m², 2 gela, eraberritutako bainugela, sukaldea, egongela, balkoia, jakitokia, trastelekua, negoziagarria.
Erref.: 167.576

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 85.000 €
86 m², 3 gela, bainugela, lorategi irteera duen sukaldea amerikana, egongela jantokiarekin.
Erref.: 167.623

PISUA SALGAI LUIANDON
Prezioa: 225.000 €€
90m², 3 gela, 2 bainugela, komuna, sukaldea, egongela, terraza lorategiarekin, trastelekua, garajea.
Erref.: 167.478

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

Jimmy jazz gasteiz

EKA 5 // SUITE SOPRANO + Elhombreviento
21:00 (8 + gastuak / 12 €)

EKA 12 // TIKTARA
22:00 (8 + gastuak / 10 €)

EKA 13 // METAL JOKER FEST
18:45 (10 + gastuak / 12 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

_kontra

aiaraldea.eus

Jose Miguel Tirapu *AEROMODELISTA*

"Tamaina garrantzitsua da aeromodelismoan, hasiberria zarenean batez ere"

JOSE MIGUEL TIRAPU (Bilbo, 1957) "Alas de Orduña" aeromodelismo klubeko lehendakaria da. Kluben arteko topaketa egingo dute ekainaren 13an, Delikan duten zelaian.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Zer dauka Urduñak aeromodelismoari begira berezi egiten duena?

Lekua ederra da. Oso zaila da prezio eskuragarri batean lortzea lege-baldintza guztiak betetzen dituen zelai bat (hirigune hurbilenetik gutxienez 500 metrora egotea...), eta hau eskura genuen.

Zergatik aeromodelismoa?

Nik ez dut uste gure zaletasunak hautatzen ditugunik, zaletasunek gu hautatzen gaituztela baizik. Zergatik ditudan gogoko hegazkinak? Ez nuke jakingo esaten zergatik. Horrela da, besterik gabe. Aeromodelismoak badu zerbait berezia: diseinatzeko edo eraikitzeko orduan askatasuna ematen dizula, "benetako hegazkinekin" izango ez zenukeen askatasun bat.

Tamaina garrantzitsua da aeromodelismoan?

Bai, hasiberria zarenean batez ere. Hegazkin handiak egonkorragoak direlako. Kontrolatzeko errazagoa da, paradoxikoa dirudien arren.

Ohikoak dira istripuak aeromodelismoan?

Ez dut oroitzen pertsonei kalte fisikoak eragin dizkien istripurik. Buruarekin jokatuz gero, oso zaletasun segurua da hau.

Baina istripu ikusgarriren bat edo beste bizi izan dugu, bai. Hemen bizi izan dudan ikusgarriena bi hegazkin elektrikoren artekoa izan zen: batak bestearen azpitik igarotzea zuen aurreikusia, baina parez parez egin zuten talka. Egur zatiz osatutako hodei bat sortu zen bat-batean. Halakoak ikustea oso dibertigarria da, hegazkinen jabeentzako salbu, noski.

Zer nolako hegazkin modeloak dituzue klubeko kideek?

Badaude zenbait maketa (jatorrizko hegazkinaren ezaugarriak errespetatzen dituen eskalazko hegazkina). Baita hainbat semi-maketa ere (hobeto hegan egin dezaten jatorrizko hegazkinarekiko aldaketa batzuk dituztenak). Bukatzeko, inolako hegazkinen kopia ez diren aeromodeloak daude.

Klubeko hegazkin gehienak elektrikoak dira, nahiz eta badauden leherketazko motorrarekin doazenak ere.

Helduentzako jostailuak dira aeromodeloak?

Zaletasun hau zaharren hobby bat dela esan daiteke.

Gazteak dena eginda jasotzera ohituak daude. Zaletasun hau guztiz kontrakoa da, benatakoa den zerbait maneiatu behar duzulako, apurtu daitekeen zerbait.

Meteorologia, elektronika, aerodinamika, materialen erresistentzia... ikasi behar duzu. Kostata ikusten da jende gaztea halako klubetan. Hogeita hamar urtetik gorakoak gara gehienak. Eta pena bat da hori, imajinazioa zein eskuen abilidadea indartzeko estimulu oso sendoa delako.

Irati
Marañon
ITZULTZAILEA

_Leihotik

Quincaillerie

Zu beroan izan nintzen aurreko asteburuan. Lasai, ez zaituztet-eta aspertu nahi hango larre berdeak eguzkipean zein ederrak diren esanez. Gainera, udaberri bete-betean hara joatea ez da ez oso ideia ona gramineoi alergia dien batentzat. Hango paisaia bukolikoak mehatxu bilakatzen dira alergiko gaixoontzat. Atharratze inguruko mendi bi igotzea zen asmoa. Herriko sarreran utzi gintuen busak, eta plaza zeharkatuta aldapan gora hasi ginela hara zer esan zigun Arrasateko lagun batek han zegoen burdindegi baten paretik igarotzean: anai-arrebek ohitura zutela urtero Irati aldera joateko neguan eta beti gelditzen zirela Atharratzen, baratzerako katiuskak erostera burdindegi hartan. Hegoaldean saltzen dituztenak baino hobeak omen dira, aizue! Mendian gora, beraz, zera pentsatu nuen: ekintza hark, katiuskak han erosteak, bazuela karga sinboliko handia nazio ikuspegiaren aldetik. Batzuek udako etxea erosten dute Kantabrian; besteek diru apur bat uzten dute Atharratzeko burdindegian. Norberak pentsa dezala zer multzotan egon nahi duen eta nori eman nahi dion dirua. Bitartean izan üntsa!

OrduWare
INFORMATIKA ZERBITZU TEKNIKOA
WWW.ORDUWARE.COM
GRAN VIA 10,SOLAIRUARTEA
48460, URDUÑA (BIZKAIA)
945 03 26 46
669 20 82 99
616 61 24 87
INFO@ORDUWARE.COM
PRESUPUESTOS@ORDUWARE.COM
ORDENAGAILU KONPONKETAK
INSTALAZIO ETA KONFIGURAZIOA
ANDROID MUGIKORREN KONPONKETA
VIRUS ETA MALWAREEN EZABAKETA
DATUEN BERRESKUPERAKETA